

KOIUNTURAZ

77. zkia. – 4. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	12
Ekoizpen jarduera	13
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	20
Lan merkatua.....	24
Prezioak, kostuak eta soldatak	29
Prezioak	30
Lan kostuak eta soldatak	34
Arlo publikoa.....	36
Finantza arloa	39
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	45
Ingurunerako aurreikuspenak	45
EAErako aurreikuspenak	51

LABURPENA

2011ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak bere hazkunde erritmoa leundu zuen eta barne produktu gordinaren urte arteko tasa %0,6an kokatu zuen, aurreko balioa baino bi hamarren beherago, ahultasun handiko epealdia nozitzen ari dela agerian utziz. Hain zuzen ere, azken honekin dagoeneko sei hiruhilekoz jarraian pilatu ditu hazkunde positiboak EAEko ekonomiak, baina horietan guztietan ez da behin ere %1,0ra iritsi, enplegua sortzea edo galtzea banatzen duen marra izaten baita tasa hori. Beste behin ere, bultzada handiena kanpo eskaritik etorri zen, hiruhilabeteko hazkundearen bi herenak ekarri baitzituen. Hala ere, eskari hori bizitasuna galtzen ari dela hauteman da, EAEko esportazioen ohiko helburu gehienek bizi duten moteltzearen ondorioz. Alderaketa bat eginez, EAEko ekonomia Espainiako batez bestea (%0,8) baino zertxobait gutxiago eta Europako batez bestea (%1,4) baino nabarmen gutxiago hazi zen.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.




Iturria: Eustat.

Ekonomia inguruneak moteltzeko joera orokor batean murgilduta jarraitzen du, garatutako herrialdeak zein azaleratzen ari direnak kaltetu dituen. Hain zuzen ere, munduko ekonomia %3,5aren inguruan hazi zen hirugarren hiruhilekoan, azken zazpi hiruhilabeteko erritmorik

apalena baita. Halaber, zor subiranoaren krisiak, ekonomia eragileen konfiantza ezak, kreditu bat lortzeko zailtasunek eta gobernuek onartutako herstura politikek ziurgabetasuneko eta ezkortasuneko giroa osatu dute, ekonomia erakundeak datozen hiruhilekoetarako aurreikuspenak beheratzera behartu dituen.

Munduko ekonomia. BPGren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera.
Urte arteko aldakuntza tasa eta indizea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostat, ELGE, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakundearen datuak erabilia.

Garapen bidean dauden herrialdeek zertxobait leundu zuten beren hazkunde tasa, Asiako erraldoien bultzada txikiagoak baldintzatuta, nahiz eta oraindik oso emaitza nabarmenak lortu dituzten. Hain zuzen ere, Txina %9,1 hazi zen eta India, berriz, %6,4. Halaber, nolabaiteko nekea hauteman da Brasileko ekonomian, bere BPG %2,3 gehitu baitzuen, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gutxiago.

Oro har, garatutako herrialdeek bigarren hiruhilabetearena bezalako emaitza lortu zuten eta AEBek, Alemaniak eta Italiak izan zuten moteltzea Kanadako bizitasun handiagoak eta Japoniako ekonomiaren suspertzeak konpentsatu zuten. Espainiak eta Frantziak motelaldia galgatzea lortu zuten eta aurreko hiruhilabeteko datua berdindu zuten.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Europar Batasuna 27	-4,3	1,9	2,4	2,1	2,4	1,7	1,4
- EAE	-3,9	0,3	0,8	0,8	0,9	0,8	0,6
- Espainia	-3,7	-0,1	0,4	0,7	0,9	0,8	0,8
- Alemania	-5,1	3,7	4,0	3,8	4,6	2,9	2,6
- Frantzia	-2,7	1,5	1,6	1,4	2,2	1,6	1,6
- Italia	-5,1	1,5	1,4	1,5	1,0	0,8	0,2
- Erresuma Batua	-4,4	1,8	2,6	1,3	1,6	0,6	0,5
Amerikako Estatu Batuak	-3,5	3,0	3,5	3,1	2,2	1,6	1,5
Japonia	-6,3	4,1	4,9	2,5	-0,6	-1,0	-0,2
Txina	9,2	10,3	9,6	9,8	9,7	9,5	9,1
India	6,8	10,1	9,1	9,2	7,7	8,5	6,4
Errusia	-7,8	4,0	3,5	4,4	3,8	3,5	4,8
Brasil	-0,6	7,5	7,0	5,3	4,2	3,3	2,3

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Munduko ekonomiaren multzoak erakusten duen ahultasunak eta datozen hiruhilekoetarako aurreikuspenen okertzeak Brent motako petrolio upelaren salneurria 110 dolarren eta 80 euroren inguruko mailan egonkortu dute. Martxotik aurrera balio horiek hileko guztietan errepikatu dira. Truke tasari dagokionez, zor subiranoaren krisiak europar dirua ahuldu du dolarren aldean eta azaroan 1,36 dolarren truke saltzen zen euroa. Abenduan euroaren diru galera gehiago areagotu da.

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Testuinguru horretan, EAEko ekonomiak ere emaitza okerragoa jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, baina kasu horretan moteltzeko joera bi hamarrenetara mugatu zen eta BPGren gehikuntza tasa %0,6an kokatu zen urte arteko tasan. Hazkunde txikiagoa kanpo eskariaren ekarpenean fokatzen da, sei hamarrenekoa izatetik lau hamarrenekoa izatera igaro baita. Aitzitik, barne eskariak aurreko emaitza bera lortu zuen eta bi hamarren ekarri zituen, ekonomiaren bultzagile nagusia izateko dauzkan zailtasunak agerian utziz.

Barne eskarian, kontsumo pribatuak sei hamarrenetan hobetu zuen bigarren hiruhilekoan jasotako emaitza, baina urte arteko alderaketa 2010eko uztailan onartu zen BEZ zergaren igoerak baldintzatzen du, kontsumitzaileek zenbait erosketara aurreratzeko erabakia hartu zutelako. Beraz, kontsumoaren susperraldia baino gehiago, hirugarren hiruhilekoan konpentsazio estatistiko bat gertatu da, bigarren hiruhilabeteko datua baxuegia zelako. Kontsumo publikoari dagokionez, 2000. urtetik izan duen lehen beherakada jaso zuen eta urte arteko aldakuntza tasa %-2,0an kokatu zuen, administrazio publikoak onartu dituen doikuntza fiskaleko politiken ondorioz. Aitzitik, kapitaleko eraketa gordinak (%-0,2) aurreko epealdietan baino irudi hobeagoa eskaini zuen eta balio positiboak berreskuratzetik hurbil dagoela baieztatzen du, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren bizitasunari esker.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	-3,9	0,3	0,8	0,8	0,9	0,8	0,6
Enplegua	-3,5	-0,9	-0,2	-0,5	-0,1	-0,4	-0,7
Ekoizkortasun irabaziak	-0,4	1,2	1,0	1,3	1,0	1,1	1,3
Langabezia tasa	8,1	9,2	8,8	10,0	10,7	10,9	10,6
Kontsumoko prezioen indizea	0,3	1,7	1,9	2,4	3,4	3,4	2,9

Iturria: Eustat eta INE.

Sektoreen analisiak erakusten du industria dela oraindik hazkunde erritmo biziena lortzen duen arloa, inguruneko ekonomien bizitasunak lagunduta. Hala eta guztiz ere, industriaren gehikuntza tasa (%1,5) aurreko hiruhilabetekoaren erdia baino txikiagoa izan zen. Oso bestelakoa izan zen zerbitzuetako bilakaera, beren balio erantsia hiru hamarrenetan areagotu zutelako eta %1,3ko urte arteko tasa lortu zuten, hamaika hiruhilekotako handiena baita. Kasu horretan, administrazioari lotutako zerbitzuek eman zuten bultzada, %2,9 hazi zirelako, merkatuko zerbitzuek (%0,9) aurreko epealdietakoak bezalako balioak lortu zituzten bitartean. Azkenik, eraikuntzak beste atzera pauso bat eman zuten eta bere balio erantsia %6,0 jaitsi zuten, urteko daturik txarrenea delarik.

Enpleguari dagokionez, urte hasieratik hautematen den narriadura hirugarren hiruhilekoan areagotu zen eta %0,7ko jaitsiera jaso zuten urte arteko tasan, bigarren hiruhilekoko baino hiru hamarren handiagoa baita. Hala ere, Eustatek estimatu zuen langabezia tasa %10,6ra jaitsi zen, lan merkatuan parte hartzen duten lagunen kopurua gutxitu zelako. Produktibitate irabaziak %1,3 hobetu ziren eta kontsumoko prezioek beren portaera leundu zuten hiruhilekoaren batez bestea %2,9an utzi arte, urteko lehen seihilekoan jaso zuten balioa baino puntu erdi bat beherago dagoelarik. Energiako hainbat ekoizkinen eta tabakoaren garestitzeak oztopoak dira KPIk eskariaren ahultasunarekin bat egingo lukeen bilakaera bat eskaini dezan. Dena dela, indize orokorra osatzen duten talde gehienek oso apal igo dituzte beren prezioak.

Datozen hiruhilekoei begira, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenak iragartzen du azken urtebete eta erdiko epealdian jaso diren balio positiboak baina txikiak berriro lortuko direla. Izan ere, 2011ko azken laurdenean urte arteko hazkundera %0,4 baino ez da izango eta zenbateko bera espero da 2012ko lehen hiruhilekorako. Horren ondorioz, BPGren 2011ko gehikuntza tasa %0,7 izango da termino errealean. Hurrengo urtean antzeko

zenbaki bat lortuko da eta hiruhileko batetik bestera gehiago haziko bada ere, laugarren hiruhilekoaren emaitza %1,0aren ingurukoa izango da.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2011RAKO ETA 2012RAKO

Urte arteko aldakuntza tasak	2011		2012			2011	2012
	IV	I	II	III	IV		
BPG erreala	0,4	0,4	0,5	0,7	1,0	0,7	0,7
BPGren deflatoarea	2,2	2,2	2,1	2,4	2,4	1,9	2,3
Enplegua	-1,0	-0,9	-0,7	-0,3	0,1	-0,5	-0,4
Langabezia tasa	10,8	10,9	10,9	10,6	10,3	10,8	10,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Oro har, eskarien ekarpenak beste modu batean banatuko direla espero da eta bultzada nagusia kanpo eskaritik iritsi beharrean, barne eskaritik iritsiko da. Europako ingurunearen okertzeak esportazioen garapena eragotziko du. Aitzitik, barne jardueraren suspertzeak atzerrian eginiko erosketak areagotuko ditu. Horren ondorioz, kanpo arloaren ekarpena 2011ko bost hamarrenetatik 2012rako aurreikusten diren bi hamarrenetara jaitsiko da. Barne eskariak irudi baikorragoa eskainiko du, neurri handi batean kapital eraketa gordinaren portaera hedakorragoari esker, balio negatiboak atzean utziko dituelako.

Eskaintzaren ikuspegitik, ez da aldaketarik hautematen ekoizpen arloetan eta industriak lortuko ditu berriro emaitza onenak, aurreikusi diren bi urteetan %2tik zertxobait goragoko tasak lortuta. Zerbitzuek %1aren inguruko bilakaera egonkorra izango dute eta eraikuntzak bere doikuntzak egiten jarraituko du, 2012. urtean berriro gehikuntza tasa negatibo bat jasoko duelarik, 2011koa baino txikiagoa izango den arren. Aurreko guztiaren ondorioz, balio erantsi gordina %0,7aren inguruan kokatuko da bi urteetan.

Buletin honetan aurreikusten dena bezalako hazkunde hutsal batek ez du lanpostuen galera eragotziko eta 2011n enplegua %0,5 jaitsiko dela espero da, hurrengo urtean galera %0,4ra mugatuko delarik. Horren ondorioz, langabezia tasa %10,8aren inguruan egongo da, biztanleria aktiboaren bilakaerak baldintzatuta. Azkenik, ez da tentsiorik hautematen prezioetan eta BPGren deflatoarea ez da %2 baino askoz gehiago haziko kontuan hartu den epealdi osoan.


EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


2011ko hirugarren hiruhilekoaren ezaugarri nagusia munduko ekonomia jardueraren moteltzea izan zen. Finantza merkatuetako tentsioak berriro agertu izanak, arlo publikoaren eta pribatuaren balantzeak onbideratzen jarraitzeko beharrak eta etxebizitza zein lan merkatuen etengabeko ahultasunak ekonomia aurreratuen hazkunde mugatu zuten. Garapen bidean dauden ekonomiek ere zertxobait gutxitu zuten beren gehikuntza tasa, baina oraindik sendo hazi ziren.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Hain zuzen ere, eskari orokorraren jaitsierak zuzen eragin zuen Txinako kanpo arloan, barne produktu gordinari eginiko ekarpena nola gutxitzen zen ikusi baitzuen. Orobat, nolabaiteko moteltzea hauteman zen inbertsioaren hazkundean, gobernuak inflazioa kontrolatzeko ezarri zituen moneta neurri gogorragoen ondorioz. Aurreko guztiairengatik, Txinako BPG lau hamarren gutxiago hazi zen eta %9,1ean kokatu. Tasa hori tamaina handikoa da oraindik, baina azken bi urteko txikiena da. Gobernuak prezioen gorakadak moteltzeko egin zituen ahaleginak ondorioak ekartzen ari direla ematen du eta inflazioa, uztailean %6,5 hazi ondoren, %4,2ra moteldu zen azaroan.

Europar Batasuna eta Eurogunea gutxiago hazi baziren ere, estatubatuar ekonomiak erakutsi zuen egonkortasunak eta japoniar ekonomiaren hobekuntza txikiak bide eman zieten ELGE osatzen duten herrialdeei hazkunde tasa hamarren bat bizkortzeko, %1,8ra arte. Zehazkiago adierazita, AEBetan kontsumo pribatuaren sendotasunak, ekipamenduan eta softwarean eginiko inbertsioaren bultzadak eta etxegintzan eginiko inbertsioaren susperraldiak kanpo arloak galdutako hamarrenak konpentsatzea lortu zuten, eta bertako BPG %1,5 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Hala ere, lan merkatuak hobekuntza txiki bat izan zuen. Hiru hiruhilekoz jarraian langabezia tasa %9,1ean mugitu gabe egon ondoren, urrian hamarren bat jaitsi zen, lanik gabeko pertsonen kopurua 14 milioi lagunengain inguruan utzita. Inflazioak, berriz, 2010eko abenduaren amaieran hasi zen goranzko joerari buelta ematea lortu zuen eta irailean %3,9ko datu gorena jaso ondoren, azaroan %3,4ra jaitsia zen.

Japonian, ekonomia jarduerak begi bistako hobekuntza lortu zuen urte hasierako beherakadaren ondoren, eskualdea hondatu zuen lurrikara handiak eraginda. Kontsumo publikoaren egonkortasunak, gobernuak japoniar ekonomia suspertzeko bideratu zituen diru laguntzen ondorioz, industria ekoizpenaren susperraldi azkarrak, esportazioek hazkunde tasa positiboak berreskura zitzatela ahalbidetu baitzuen, eta neurri txikiagoan kontsumo pribatuaren hobekuntzak (%-0,2an kokatu zen, lehenago ia %-1,0 jaitsi ondoren) Japoniako BPG aurreko hiruhilekoan baino zortzi hamarren gehiago haztea eta %-0,2an kokatzea ahalbidetu zuten. Lan merkatuak emaitza aparta erakutsi zuen berrirori eta hirugarren hiruhilekoan langabezia tasa %4,4ra jaitsi zen. Tasa horrek adierazten du lanik gabeko pertsonen kopurua 2.700.000 lagunetara bakarrik iristen dela. Udako hilekoetan eremu positiboan egon ondoren, prezioek behera egin zuten berrirori eta urrian %-0,2an kokatu ziren.

Europar Batasunak narriadura orokorra ezagutu zuen eremua osatzen duten herrialdeetako hazkunde erritmoan eta BPGren gehikuntza tasa %1,4ra gutxitu zuen, aurreko hiruhilabeteko emaitza baino hiru hamarren beherago. Euroguneko herrialdeek gehiago nabaritu zuten erritmo galera, eremu horretakoa ez diren ekonomien artean batzuek hazkunde biziagoak lortu

zituzten bitartean. Besteak beste, Lituania, Letonia, Errumania eta Polonia nabarmendu behar dira, hurrenez hurren %7,3, %6,1, %4,4 eta %4,2 hazi zirelako.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2009	2010	2010		2011				
			III	IV	I	II	III	Urria	Azaroa
BPG erreala									
AEB	-3,5	3,0	3,5	3,1	2,2	1,6	1,5	---	---
Japonia	-6,3	4,1	4,9	2,5	-0,6	-1,0	-0,2	---	---
Eurogunea 17	-4,2	1,8	2,1	1,9	2,4	1,6	1,4	---	---
- Alemania	-5,1	3,7	4,0	3,8	4,6	2,9	2,6	---	---
- Frantzia	-2,7	1,5	1,6	1,4	2,2	1,6	1,6	---	---
- Erresuma Batua	-4,4	1,8	2,6	1,3	1,6	0,6	0,5	---	---
Inflazioa									
AEB	-0,4	1,6	1,2	1,3	2,1	3,4	3,8	3,5	3,4
Japonia	-1,4	-0,7	-1,0	-0,3	-0,5	-0,4	0,1	-0,2	---
Eurogunea 17	0,3	1,6	1,7	2,0	2,5	2,7	2,7	3,0	3,0
- Alemania	0,2	1,2	1,2	1,6	2,2	2,5	2,7	2,9	2,8
- Frantzia	0,1	1,7	1,8	1,9	2,0	2,2	2,3	2,5	2,7
- Erresuma Batua	2,2	3,3	3,1	3,4	4,1	4,4	4,4	5,0	4,8
Langabezia tasa									
AEB	9,3	9,6	9,6	9,6	8,9	9,1	9,1	9,0	---
Japonia	5,1	5,1	5,0	5,0	4,7	4,6	4,4	---	---
Eurogunea 17	9,5	10,0	10,1	10,1	10,0	10,0	10,2	10,3	---
- Alemania	7,5	6,8	6,9	6,6	6,3	6,0	5,7	5,5	---
- Frantzia	9,5	9,7	9,8	9,7	9,7	9,7	9,8	9,8	---
- Erresuma Batua	7,6	7,8	7,7	7,8	7,7	7,9	8,2	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Zehazkiago, BPGren gehikuntza tasa %2,6 delarik, Alemaniak Europako ekonomia jardueraren batez bestea baino gehiago haztea lortu zuen. Kontsumo pribatuaren sendotasunak, enplegu sorrerari esker, eta inbertsioaren bizitasunak barne eskaria hazkundearen bultzagile nagusi gisan kokatu zuten berriro. Frantziak, berriz, aurrera egin zuen inbertsioaren indarrari esker eta, neurri txikiagoan, kontsumo publikoaren egonkortasunari esker. Aitzitik, kontsumo pribatuak hazkundera gutxitzen jarraitu zuen eta %0aren inguruan kokatu zen. Kanpo arloaren susperraldia nabarmendu zen, jardueraren hazkundera ekarpena egin baitzion, txikia izan arren. Erresuma Batuak, berriz, apaltzeko joera areagotu zuen eta

%0,5 hazi zen. Kontsumo publikoaren eta esportazioen gorakadek bakarrik lortu zuten kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren jaitsiera konpentsatzea.

Azaleratzen ari den Europak emaitza positiboa izan zuen. Eremu hori osatzen duten hamabi herrialdeetatik bederatzik Europar Batasuna hazi zen %1,4 hura baino hazkunde tasa handiagoak lortu zituzten. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren bultzadak azaltzen du, kasu gehienetan, gehikuntza tasa horiek. Beste muturrean periferiako ekonomiak kokatu ziren. Portugalen, inbertsioaren eta familien kontsumoaren jaitsierak atzeraldia areagotu zuen, %-1,7 jaso arte. Espainian, berriz, BPGren hazkundera egonkor mantendu zen %0,8an.

Lan merkatuan ez da hobekuntzarik hauteman eta Europako langabezia tasa %9,8ra igo zen urrian. Tasa horrek adierazten du langabeen kopuruak 23,5 milioi pertsonen langa gainditu duela. Beste behin ere, Alemaniako lan merkatuak erakutsi zuen ibilbide onena. Izan ere, Alemaniak herrialdea batu zenetik inoizko enplegu mailarik gorena erakutsi zuen, guztira 41,2 milioi langile zituelarik. Joera positibo horretatik urrun egon ziren periferiako ekonomiak, beraietan langabeziaren igoerak mugarik ez duela ematen baitu. Espainian, langabezia tasa %22,8ra igo zen urrian eta Portugalen eta Italian, hurrenez hurren, %12,9 eta %8,5 gainditu ziren. Hiru herrialde horien artean zortzi milioi langabe baino gehiago daude, Europar Batasun osoan dauden guztietatik %34,6.

Azkenik, prezioek ibilbide egonkorra erakutsi zuten urteko hirugarren hiruhilekoan, baina irailetik azarora bitartean goranzko joera txiki bat hauteman zen. Oro har, salneurrien igoerak ekonomia nagusi guztiei eragin zien, baina garatzen ari den Europako herrialdeetan askoz gehiago nabaritu zen. Ekonomia horietan, KPI indizea %3,0aren eta %4,5aren arteko tasetan kokatu zen eta Europako gainontzeko ekonomietan prezioen igoera %2,5aren eta %3,5aren artean egon zen. Berrir ere, prezioak askoz gehiago hazi ziren Erresuma Batuan, non KPIren azaroko datua %4,8ra igo baitzen.

Espainian, ekonomiaren jarduerak ez zuen inolako hobekuntzarik erakutsi urteko bigarren hiruhilekoaren hazkunde tasaren aldean, baina nolabaiteko aldaketa nabaritu zen hazkunde horren osieran. Kanpo arloa izan zen berriro hazkunderaren bultzagile nagusia, nahiz eta bere ekarpena puntu erdi bat txikiagoa izan zen, hain zuzen ere barne eskariak bere ekarpen negatiboa gutxitu zuen kopuru bera. Zehatz-mehatz adierazita, kontsumo pribatuaren hobekuntza balio positiboak lortu arte eta inbertsioaren jaitsiera leunagoa dira barne eskariaren hobekuntzaren oinarriak. Aitzitik, esportazioen moteltzeak eta inportazioen suspertzeak kanpo arloaren ekarpen txikiagoa azaltzen dute. Aldaketa horien guztien ondorioz, Espainiako ekonomia %0,8 hazi zen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	-2,3	0,6	0,7	0,4	0,5	-0,7	-0,4
- Familien gastua	-4,4	0,7	0,8	0,8	0,5	-0,3	0,4
- Administrazioaren gastua	3,7	0,2	0,2	-0,9	0,4	-1,7	-2,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	-16,6	-6,3	-5,5	-5,4	-4,9	-5,5	-4,2
- Aktibo finko ukigarria	-17,2	-6,4	-5,4	-5,4	-5,3	-5,7	-4,5
- Eraikuntza	-15,4	-10,1	-9,5	-9,3	-9,3	-8,4	-7,4
- Ekipamendu ondasunak	-22,3	5,1	7,3	5,4	5,6	1,5	2,4
- Aktibo finko ukiezina	-3,9	-4,8	-7,8	-5,4	1,2	-3,1	0,8
Nazio eskaria (*)	-6,6	-1,0	-0,7	-0,9	-0,7	-1,7	-1,2
Esportazioak	-10,4	13,5	11,8	14,9	13,9	8,7	8,1
Inportazioak	-17,2	8,9	7,0	8,0	7,1	-0,7	0,8
BPG (m.p.)	-3,7	-0,1	0,4	0,7	0,9	0,8	0,8
Nekazaritza eta arrantza	-1,4	-1,1	-1,5	-0,3	0,6	0,2	0,0
Industria	-10,9	0,6	0,6	1,3	3,3	2,4	3,1
Eraikuntza	-8,0	-7,8	-7,6	-5,9	-4,7	-3,1	-2,9
Zerbitzuak	-0,9	1,4	2,0	2,2	1,3	0,9	0,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	-5,4	-1,2	-0,9	-2,2	1,0	2,4	1,2
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,3	1,8	2,0	2,6	3,5	3,5	3,1
- Enplegua (**)	-6,5	-2,6	-2,0	-1,4	-1,4	-1,1	-1,9

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Eskaintzaren ikuspegitik, industria jardueraren suspertzea, eraikuntzaren jaitsiera txikiagoa (eraikuntzan eginiko inbertsioaren hobekuntzarekin bat eginez) eta zerbitzuetako moteltze arina nabarmendu behar dira, merkataritzak, garraioak eta ostalaritzak bultzada txikiagoa izan zutelako. Lan merkatua ez zen baliatu ekonomia jardueraren egonkortasunaz eta %-1,9ra areagotu zuen bere narriadura, azken urtebeteko emaitzarik okerrera baita. Lanpostuen galera adar guztietan areagotu zen eta lanaldi osoko ia 327.000 lanpostu galdu ziren. Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioak portaera neurritsua izan zuen eta beheranzko joera leuna erakutsi zuen, azaroko KPI %2,9ra eramanez. Horixe da azken urteko mailarik apalena.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, administrazio publikoek urrian 40.065 milioi euroko defizita zeukaten kontabilitate nazionalako terminoetan. Desoreka hori barne produktu gordinaren %3,7aren baliokidea da. 2011. urteko lehen hamar hilekoetan Estatuko kontuek pilatu zuten saldo negatiboa aurreko urteko epealdi berean metatutakoa baino 8.133 milioi txikiagoa izan zen, beraz %16,9 murriztu zen defizita.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek urteko hirugarren hiruhilekorako argitaratu dituen kontu ekonomikoetako datuek EAEko ekonomiaren ahultasuna egiaztatu dute. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako barne produktu gordinak hazkunde hutsala jaso zuen berriro hirugarren hiruhilekoan eta urte arteko tasa, egutegiaren eragina zuzenduta, %0,6 izan zen, bigarren hiruhilekoarena baino bi hamarren txikiagoa. Aurreko hiruhilekoaren aldean ez zuen hazkunderik lortu (%0,0). Barne eskariaren ahultasunak eta, bereziki, kanpo eskariaren moteltzeak eta horren ondorioz hazkundeari eginiko ekarpen txikiagoak eragin dute portaera hori.

Eskaintzaren ikuspegitik, gertakari azpimarragarrienak industria jardueraren moteltzea eta eraikuntzak berriro pairatu zuen narriadura sakona izan ziren. Aitzitik, zerbitzuetako bizitasunak alderdi positiboa markatu zuen. Merkaturatzen diren zerbitzuek hazkundera zertxobait apaldu zuten bitartean, merkatura irteten ez diren zerbitzuek bizitasun handia erakutsi zuten, aurreko epealdian izan zuten emaitza bi puntutan hobetu baitzuten. Hala ere, eta lehen arloa zein eraikuntza alde batera utzita, ekonomiaren gainontzeko sektoreek balio erantsi gordinari egin zioten hazkundera positiboa izan zen eta %0,6ko hazkunde tasan estimatu da agregatu makroekonomiko osoarentzat. Dena dela, hirugarren hiruhilekoa amaitutakoan agerian geratu da 2011. urtea hasi zenetik EAEko ekonomia erritmoa galgatzeko etengabeko prozesu batean murgilduta dagoela.

Eskariaren ikuspegitik, barne eskariak %0,2ko hazkunde tasa hutsala izan zuen 2011ko hirugarren hiruhilekoan, bereziki administrazio publikoetako kontsumoa nozitzen ari den murrizketa garrantzitsuaren ondorioz, hersturako politika gogorrek baldintzatuta. Arlo pribatuak neurri batean konpentsatu zuen kontsumo publikoaren ahultasuna eta kontsumo pribatuak nabarmen egin zuen gora 2011ko hirugarren hiruhilekoan. Inbertsioari dagokionez, etxegintzak okerrera egin bazuen ere, kapitaleko eraketa gordinaren agregatuak nabarmen gelditu zuen bere jaitsiera uztailetik irailera doan epealdian, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioari esker.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Barneko azken kontsumoa	-2,0	1,2	1,8	1,4	0,9	0,5	0,3
- Familien gastua kontsumoan	-3,9	0,9	1,5	1,3	0,8	0,3	0,9
- Herri administrazioen gastua	5,0	2,3	3,0	1,5	1,3	1,3	-2,0
Kapital eraketa gordina	-15,2	-6,0	-4,0	-3,1	-1,8	-1,0	-0,2
Barne eskaria	-5,6	-0,5	0,4	0,2	0,3	0,2	0,2
Esportazioak	-13,2	7,6	6,5	10,0	13,3	3,2	12,4
Inportazioak	-14,9	5,5	5,3	8,5	11,6	2,1	11,1
BPG (m.p.)	-3,9	0,3	0,8	0,8	0,9	0,8	0,6
Lehen arloa	-5,5	24,7	51,8	48,2	-13,9	-16,0	-21,6
Industria	-12,7	1,8	3,5	2,8	3,7	3,3	1,5
Eraikuntza	-7,4	-9,8	-9,8	-7,9	-4,6	-5,6	-6,0
Zerbitzuak	-0,1	0,6	0,4	0,5	0,8	1,0	1,3
Balio erantsi gordina	-4,3	0,1	0,6	0,6	1,0	0,9	0,6
Ekoizkinen zerga garbiak	-0,2	2,0	3,0	2,0	0,0	-0,5	0,3

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Ekoizpen jarduera

Nekazaritzaren eta arrantzaren hazkundera 2011ko hirugarren hiruhilekoan sakonki narriatu zen eta urte arteko aldakuntza tasan %21,6ko beherakada izan zuela estimatu da. Emaita hori 2005eko amaieratik lehen arloaren balio erantsi gordinaren bilakaerak inoiz jaso duen okerreana da.

EAEko industriak moteltze garrantzitsua aurkeztu zuen eta bere balio erantsi gordinaren urte arteko gehikuntza tasa %1,5ean geratu zen, aurreko hiru hilekoetan lortutakoa baino puntu oso bat eta zortzi hamarren gutxiago. Hazkunde erritmoa nabarmen apaldu bazen ere, industria jarduerak berriro izan zuen portaera dinamikoena hiruhileko horretan. Koiunturako adierazleek ere sektorearen moteltzea iragarria zuten. Industria produkzioaren indizeak mantsoitze garrantzitsua pairatu zuen 2011ko hirugarren hiruhilekoan eta horrek tasa txikiagoak iragartzen zituen industriaren ibilbidean. Uztailetik irailera bitartean, ekipamendurako ondasunek eta, neurri txikiagoan, bitarteko ondasunek oso portaera

hedakorra erakutsi zuten, baina kontsumorako ondasunek eta, bereziki, energiak beherakadak izan zituzten beren ekoizpen indizeetan.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK







Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011		
			IV	I	II	III	Urria	Azaroa
Industria								
Balio erantsi gordina	-12,7	1,8	2,8	3,7	3,3	1,5	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	-20,6	2,4	2,8	3,8	1,8	0,2	-0,9	---
Industria giroaren indizea	-42,0	-20,3	-15,7	-8,7	-9,0	-15,5	-11,4	-20,9
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	66,9	69,8	73,5	72,1	75,0	74,8	---	78,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,8	-4,3	-2,6	-2,3	-1,8	-2,2	-2,4	-2,8
Eraikuntza								
Balio erantsi gordina	-7,4	-9,8	-7,9	-4,6	-5,6	-6,0	---	---
Eraikuntzaren indizea	-12,2	-16,9	-17,2	-6,7	-14,9	-4,4	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-24,6	-1,4	42,6	10,6	2,1	7,8	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-19,4	25,4	18,5	-1,5	-27,6	-31,9	-29,9	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-6,6	-7,5	-7,9	-7,3	-8,4	-9,1	-9,7	-9,7
Zerbitzuak								
Balio erantsi gordina	-0,1	0,6	0,5	0,8	1,0	1,3	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	-13,5	5,3	3,8	0,7	2,3	4,8	0,1	1,0
Hoteletan igarotako gaualdiak	-2,1	12,3	12,1	7,2	7,8	6,6	0,3	-1,2
Hoteletako okupazioa	41,3	43,7	40,1	33,9	48,1	61,1	48,4	37,7
Negoio zifren indizea	-13,1	2,8	1,7	2,3	-1,2	-0,4	-3,9	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,6	0,9	1,1	1,4	1,2	0,6	0,4	0,3

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Jarduera adarren arabera, urte arteko hazkunde tasa positiboak aurkeztu zituzten arloak farmaziako produktuak, garraio materiala eta makineria eta ekipamendua izan ziren. Beste muturrean, industria ekoizpenean beherakada handiak izan zituzten adarrak energia alorrean biltzen dira (argindarra, gasa eta lurruna, koke lantegiak eta petrolio findegiak). Beherakada horren ondorioz EAEko industria arloak ekarpen txikiagoa egin zion balio erantsi gordinari uztailetik irailera bitarteko hilabeteetan.

Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak
Industria

IPI (ziklo-joera)

Eraikuntza

Zerbitzuak

Merkatuko zerbitzuak

Merkatuko zerbitzuak ez direnak


Iturria: Eustat.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak enpresarien iritziez osatzen duen inkestak industria giroaren okerragotzea islatu du, eskari zorroz eta ekoizpenaz dituzten igurikimenak narriatu direlako. Industria giroaren indizeak 15,5 puntuko jaitsiera erakutsi zuen hirugarren hiruhilekoan, hiru hilekoetan zehar izan zuen beheranzko joeraren ondorioz. Izan ere, irailean urte osoko baliorik txikiena jaso zen. Inkesta horrek eskaintzen duen beste datu bat ekoizteko ahalmenaren erabilera maila da. Adierazle horrek moteltzeko joera arina erakutsi zuen 2011ko hirugarren hiruhilekoan, baina urteko azken hilabeteetarako eskaini duen datu aurreratuak hobekuntza garrantzitsua erakusten du eta azken hiru urteko mailarik altuenetakoen artean kokatu du.

Eraikuntzak duela ia lau urte hasi zuen beheranzko ibilbide biziari jarraipena eman zion. Hiruhilekoka argitaratzen diren kontu ekonomikoen arabera, arlo horretako balio erantsiaren urte arteko hazkundera %-6,0 izan zen, hiru hilabete lehenago %-5,6 izan zen bitartean. Lan merkatuaren narriadura, familien konfiantzaren okerragotzea, kredituak emateko orduan dauden irizpide zorrotzak eta etxebizitzaren stock garrantzitsu bat egotea dira etxegintzaren esparruan eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza galarazten duten faktoreak. Norabide horretara seinalatzen dute higiezinaren arloko adierazleek. Saldutako etxebizitzaren estatistikak %32aren inguruko jaitsiera adierazi zuen, bai bigarren eskuko bizitegien salmentak bai etxebizitza berrienak behera egin zutelako. Etxegintzaren jarduera are gehiago gutxitu izana bizitegiak erosteko eratu ziren hipoteken kopuruak izan zuen atzerakada garrantzitsuan ere hauteman zen, 2011ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko epe berean baino %44 hipoteka gutxiago sinatu zirelako.

Eraikuntzaren egoera kaskarra inolako zalantzarik gabe erakutsi duten beste adierazle batzuk lan merkatuarenak dira. Hiruhilekoka estimatutako kontu ekonomikoak aztertzen direnean, agerian gelditzen da 2011ko hirugarren hiruhilekoan eraikuntzan galdutako enplegua %8,0ra iritsi zela, urte osoan jasotako tasarik gorena baita. Orobat, Gizarte Segurantzaren sektore horretan afiliatuta dauden kopuruak beherakada garrantzitsua erakutsi du epealdi horretan, %9,0aren ingurukoa. Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen datuek, berriz, 2011ko hirugarren hiruhilekoan ekoizpenak berriro behera egin zuela, hala obra zibilararen atalean nola, bereziki, etxegintzan, islatzen dute. Hala eta guztiz ere, epealdi horretan jaitsiera bat gertatu bazen ere, beherakada hori aurreko hiruhilekoetako baino nabarmen txikiagoa izan zen.

Zerbitzuek ere ekarpen positiboa egin zioten EAEko balio erantsiaren hazkunderari. Jarduera adar horrek %1,3ko urte arteko aldakuntza tasa aurkeztu zuen 2011ko hirugarren hiruhilekoan. Bereziki esanguratsua da merkaturatzen ez diren zerbitzuek erakutsi zuten bizitasuna, uztailetik irailera bitarteko epealdian hazkundera %2,9 areagotu zutelako. Merkaturatzen diren zerbitzuek, berriz, egonkortasuna erakutsi zuten aurreko hilekoetako emaitzekin alderatuta eta 2011ko

hirugarren hiruhilekoan %0,8ko gehikuntza tasa lortu zuten aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta.

Zerbitzuetako bilakaeraz argitaratu diren koiunturako adierazleek joera kontrajarriak erakutsi zituzten 2011ko hirugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, barne merkataritzako indizeak, termino errealean eta egutegiaren eragina zuzenduta, %1,1 inguru egin zuen behera 2010eko hilabete berekin alderatzen denean. Jaitsiera arin hori geldotasuneko bilakaera batean kokatu behar da, hobekuntzarako inolako joerarik ez daukana. Handizkako merkataritza da narriadura garrantzitsu bat nozitu duen arloa, bereziki ekoizkin erdilanduetan, txatarrean, makinerian eta ekipamenduan. Txikizkako merkataritzaren barnean, beherakada orokorra izan bazen ere, portaera ezkorrena merkataritza espezializatuko salmentetan gertatu zen. Turismoari dagokionez, establezimendu turistiko hartzaileen inkestatik eratortzen diren datuek alor horren egoera ona islatu zuten. Hain zuzen ere, EAEko hoteletan igarotako gaualdiak %6,6 areagotu ziren 2011ko hirugarren hiruhilekoan. Zenbateko hori positiboa izan arren, aurreko urteko epealdi berean jaso zena baino txikiagoa da. Udako hilekoetan EAEko hotelek izan zuten betetze maila %61,1 izan zela estimatu da. Lan merkatuari dagozkion datuek lanpostuak sortzeko prozesuan atzera pauso bat eman dela iradokitzen dute, baina hazkunde tasa positiboak lortu ziren oraindik.


Eskariaren osagaiak

Azken kontsumoan eginiko gastuak moteltzeko joerari jarraipena eman zion hirugarren hiruhilekoan. Administrazio publikoaren kontsumoaren bilakaerak eragin zuen hazkundearen bizitasun apalago hori. Izan ere, familien kontsumoak %0,9ko hazkundera jaso zuen urte arteko tasan, aurreko hiruhilabeteko emaitza sei hamarrenetan gaindituz. Aitzitik, administrazio publikoetako kontsumoa %2,0 murriztu zen 2011ko uztailetik irailera bitarteko epealdian. Hala eta guztiz ere, azken kontsumoan eginiko gastuaren agregatua berritri izan zen barne eskariaren osagairik dinamikoena eta inbertsioak hazkundeari egin zion ekarpen negatiboa neurri batean konpentsatu zuen.


EAEko familien kontsumoak nabarmen areagotu zuen bere hazkunde erritmoa eta 2011ko hirugarren hiruhilabeteko gehikuntza tasa %0,9an kokatu zen. Hazkunde garrantzitsu hori 2010eko bigarren hiruhilekoan gertatu zen erosketen aurrerapenari lotuta dago, BEZ zergaren igoera saihesteko, 2010eko hirugarren hiruhilekoan kontsumoak lortu zuen hazkundera oso txikia izan baitzen. Izan ere, EAEko kontsumitzaileak oso ezkorrak dira ekonomia orokorraren, familien ekonomiaren eta, bereziki, lan merkatuaren etorkizunaz.

Eskariaren osagaien bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Zuhurtziak bideratuta kontsumitzaileek kontsumoa gutxitzea eta baliabideak aurrezkira zuzentzea erabaki dute, familien errenta erabilgarria gutxitzen ari den arren, enplegua galdu dutelako eta aktiboen balioa jaitsi delako. Beste hiruhileko batez, familiek erosketak handiak egiteko ordua atzeratu dute, ziurgabetasun gutxiagoko etorkizun baten esperotan. Etxebizitzaren salerosketen eta ibilgailuen matrikulazioaren adierazleek horixe baieztatzen dute azken hiruhilekoetan.

Kapitaleko eraketa gordinak ekonomiaren atzeraldia gogorki pairatuz jarraitu zuen, baina narriadura erritmoa nabarmen leundu zen. Agregatu horrek beste jaitsiera bat jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, %-0,2an estimatu zena, eta oraindik negatiboa den arren suspertzeko joera garbia erakusten du. Barne eskariaren hazkundeari eginiko ekarpen negatiboa eraikuntzaren osagaiak izan zuen narriaduraren ondorioa da. Ekipamenduan eginiko inbertsioak, berriz, hazkunde esanguratsua lortu zuen, koianturako hainbat adierazletako datuen arabera. Izan ere, bai ekipamendurako ondasunen ekoizpena bai beraien inportazioa sendo areagotu ziren urteko hirugarren hiruhilekoan. Orobat, industria arloaren ekoizteko ahalmenaren erabilera %78,6ra igo zen, 2008ko amaieratik jaso gabea den maila bat delarik.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011			
			III	IV	I	II	Urria	Azaroa
Kontsumo pribatua								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-3,9	0,9	1,3	0,8	0,3	0,9	---	---
BMI txikizkaria	-3,7	-0,6	-2,6	-5,2	-3,6	-2,7	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-1,8	-0,9	-3,8	-5,2	-4,6	-5,3	-6,1	---
Landunak txikizkarian	-3,2	0,2	-0,3	-1,5	-1,7	-1,4	---	---
Automobilien matrikulazioa (*)	2,6	1,9	-20,1	-22,8	-22,5	-12,5	-13,1	---
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	75,6	83,3	89,0	91,0	81,0	74,0	---	74,0
Kapital eraketa gordina								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-15,2	-6,0	-3,1	-1,8	-1,0	-0,2	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-25,1	1,1	0,0	3,2	5,1	6,3	6,5	---
IPI ekipamendua Espainia (*)	-23,6	-0,9	1,4	3,4	3,0	1,6	-0,1	---
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	-31,0	4,7	5,3	0,5	-5,8	2,5	---	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-35,7	0,5	-7,7	-16,1	-20,1	-19,0	-17,3	---

(*) Ziklo-joera seriea.


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kanpo saldoa


Munduko merkataritzak ezin izan zuen saihestu munduko ekonomiaren moteltzea eta urteko hirugarren hiruhilekoan bilakaera ahulagoa erakutsi zuen. Hazkunde erritmo apalago hori bereziki ekonomia aurreratuetan, zehazkiago Europan eta, neurri txikiagoan, AEBetan, hauteman zen. Hala ere, hazkunde tasak oraindik garrantzitsuak izan ziren, eta eurotan neurtuta krisiaren aurreko epealdietan kontabilizatu zirenak baino handiagoak dira.

Ondasunen esportazioak Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

Hain zuzen ere, eta Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) lehen estimazioen arabera, munduko herrialde ia guztiek (salbuespenak Filipinak eta Tanzania dira) hazkunde positiboak lortu zituzten salmentetan. Horren ondorioz, salgaien munduko esportazioak %22,3 hazi ziren urteko hirugarren hiruhilekoan. Inportazioak ere indartsu goratu ziren eta %19,8 hazi ziren.

Europar Batasuneko herrialde guztiek %15etik %45era bitarteko hazkunde tasak lortu zituzten beren salmentetan, baina aurreko hiruhilekoan izan zituzten gehikuntza tasen aldean nolabaiteko moteltzea hauteman zen. Izan ere, kide berriak diren herrialdeetako esportazioek ibilbide dinamikoenak erakutsi zituzten (Estoniak %48,5, Maltak %40,4 eta Lituaniak %37,8), nahiz eta eremuaren salmentetan pisu gehien dituzten herrialdeek ere bilakaera ona izan zuten (Alemaniak %20,4, Frantziak %15,1 eta Erresuma Batuak %15,6). Greziako esportazioek ere goranzko joera erakutsi zuten eta salmentak %67,3 areagotu ziren. Gorakada horiei esker, Europar Batasun osoko esportazioak %18,8 hazi ziren.

Garapen bidean dauden Asiako ekonomietako esportazioen hazkunde tasek are bilakaera hobea lortu zuten eta aurreko mailak oso indartsuak baziren ere, oro har 2011ko bigarren hiruhilekoan izan zituzten gehikuntza tasak gainditu zituzten. Hain zuzen ere, Txinak urteko hirugarren hiruhilekoan %20,6ko aldakuntza tasa eskuratu zuen esportazioetan. Orobat, Indiak eta Hego Koreak, hurrenez hurren, %53,3 eta %21,4 areagotu zituzten beren salmentak atzerrian.

EAEko esportazioak, berriz, %25,5 igo ziren eta ia 5.300 milioi eurora iritsi ziren. Halaber, barne kontsumoaren hobekuntzak eta inbertsioaren jaitsiera txikiagoak inportazioen emaitza biziagotu zuten, %11,5 hazita. Aurrekoaren ondorioz, eta salmenten balioak erostetara gainditu zuela kontuan hartuta, EAEko merkataritza superabitak 1.100 milioi euroko langa gainditu zuen eta serie historiko osoaren baliorik gorena markatu zuen. Energiaz bestelako atalean, hazkundeak are biziagoak izan ziren eta merkataritza saldoak bi mila milioi eurotik gorako superabita lortu zuen, aurrekaririk gabeko zenbatekoa delarik.

Ekonomia eremuka, herrialde aurreratuetan saldutakoaren bizitasuna azpimarratu behar da, Japoniako merkaturatik (%153,1), Italiakotik (%47,1) eta Alemaniakotik (%31,0) eginiko erostetek lideratuta. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeetan saldutakoa gutxiago hazi zen. Saldu ziren ekoizkin motei dagokienez, ekipamendurako ondasunak eta metal arruntak eta beren manufakturak gehien saldu zirenak berriro izan arren, hazkunde tasa zerbait moteldu zen plastikoaren eta kautxuaren emaitza ezohikoarengatik, esportazio guztien ia %17 bereganatu zituelako. Inportazioen artean, mineralak eta produktu energetikoak, alde batetik,

eta metal arruntak, beste aldetik, izan ziren erosketen bilakaera gehien baldintzatu zuten adarrak.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERRIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2011-III
	2009	2010	2010	2011			
			IV	I	II	III	
ESPORTAZIOAK							
Guztira	-26,6	20,1	17,3	31,6	2,3	25,5	5.262.881
Energetikoak	-30,8	23,0	23,3	212,8	0,2	11,1	524.577
Ez energetikoak	-26,1	19,9	16,7	24,1	2,5	27,3	4.738.304
INPORTAZIOAK							
Guztira	-38,9	24,3	24,4	32,9	10,5	11,5	4.147.631
Energetikoak	-40,9	26,5	41,4	54,0	12,9	9,9	1.462.153
Ez energetikoak	-37,8	23,1	16,8	22,4	9,2	12,3	2.685.478

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2010eko datuak behin-behinekoak dira.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europar Batasuna berriro izan zen EAEko esportazioen helburu behinena, merkatu kuotaren %67 inguru bereganatuta. Alemaniako ekonomiaren sendotasunak eta Frantziako egonkortasunak eremu horretan saldutakoa %36,4 areagotzea ahalbidetu zuten, sortu zenetik inoizko gorakadarik handiena baita. Hazkunde tasa horrek esan nahi du Europar Batasunak 3.519 milioi euro gastatu zituela EAEko ekoizketan. Kopuru horretatik %65 baino gehiago Alemaniak, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak eraman zuten. Herrialde horietan, burdinaren galdaketa eta bere manufakturen, kautxuaren eta, bereziki, ibilgailu automobilen erosketak, aurreko hiruhilekoan %0,6 jaitسي ondoren %36,0 hazi zirelako, nabarmendu zen. Automobilen salmentaren gorakadak garraio materialaren atala hazkunde positiboetara itzultzea ahalbidetu zuen.


EAEko ekonomia gutxiago hazi bazen ere, Europar Batasunetik iritsitako inportazioak nabarmen suspertu ziren eta %11,5 hazi. Ekipamendurako ondasunen gorakadak, makinak eta tresnen erosketak izan zuen bilakaera onak baldintzatuta (%9,9 jaitسي ondoren %4,0 hazi ziren) eta plastikoa eta kautxuaren taldeak izan zuen bizitasunak (%70,2 areagotu zen) azaltzen dute bilakaera hori. Beraz, eremu horretan eginiko erosketak 1.800 milioi eurotik gorakoak izan ziren, kopuru horretatik %50 baino gehiago Alemanian eta Frantzian egin ziren.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera
Ehunekoak

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2011ko hirugarren hiruhilabeteko datuak.

Hamabost hilabetez baino gehiago estatubatuar merkatuan saldutako EAEko esportazioak %10 baino gehiago hazi ondoren, 2011ko hirugarren hiruhilekoan salmentak %4,2 baino ez ziren hazi, aurreko hiruhilekoan baino zazpi puntu gutxiago eta hirugarren hiruhilekoz jarraian hazkunde tasa gutxituz. Osaerari dagokionez, moteltzeko joera atal nagusi guztietan hauteman zen, bereziki tresna mekanikoetan eta erregai mineraletan. Hala eta guztiz ere, datu esanguratsuena inportazioen eskutik iritsi zen, zeren eta EAEko eragileek herrialde horretan erosi zutenaren balioa %111,9 igo baitzen. Salmentetan ez bezala, erregai mineralak izan ziren erosketen bultzatzaileak eta inportazioak 171 milioi euroetara heltzea ahalbidetu zuten, serie historikoko emaitzarik handienetako bat delarik.

Ekonomia harremanak ez ziren horren onak ELGE erakundean parte hartzen ez duten herrialdeekin. Izan ere, Txinarekiko eta Brasilekiko merkataritza salerosketek bilakaera negatiboa izan zuten eta bi herrialde horietan saldutakoa gutxitu zen. Ibilgailu automobilen eta makina eta tresnen salmenta txikiagoak azaltzen du EAEko esportazioak Txinara (%-2,2) eta Brasilerara (%-10,3) gutxitu izana. Errusian saldutakoak ere nabarmen apaldu ziren, baina kasu horretan ez zen aldakuntza tasa negatibo bat jaso. Hain zuzen ere, erreminta eta lanabesen esportazioek eta makinak eta tresna elektrikoek herrialde horretan saldutakoa %18,4 haztea ahalbidetu zuten. Inportazioei dagokienez, beherakadak orokorrak izan ziren eta EAEko eragileek ia erdira gutxitu zuten hiru herrialde horietan erositako produktuen balioa. Errusia

izan ohi da erregai mineralen hornitzaile nagusia EAEn, baina erositako erregaien %30 baino ez zuen saldu (aurreko hiruhilekoan ehuneko hori %60aren inguruan kokatu zen). Orobat, galdaketa eta beraren manufakturen erosketa txikiagoak Txinatik eta Brasiletik etorritako inportazioei kalte egin zien.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2011 III	Guztiarekiko ehunekoak
	2009	2010	2010	2011				
			IV	I	II	III		
Esportazioak								
ELGE	-30,7	19,4	27,2	38,8	8,0	32,8	4.157.863	79,0 %
Eurogunea	-32,6	23,1	34,1	30,1	6,5	35,9	2.866.623	54,5 %
Europako kide berriak	-30,9	17,1	18,1	29,2	4,4	64,9	317.221	6,0 %
Europar Batasuna 27	-33,0	22,6	29,3	32,3	4,9	36,4	3.519.426	66,9 %
Errusia	-47,1	51,1	52,0	74,0	20,3	18,4	51.701	1,0 %
Txina	-35,0	54,0	39,9	17,5	31,7	-2,2	131.300	2,5 %
Brasil	-25,0	55,4	16,2	262,3	16,2	-10,3	86.264	1,6 %
Inportazioak								
ELGE	-33,7	20,2	12,6	9,7	6,2	12,4	2.215.104	53,4 %
Eurogunea	-36,9	17,7	5,0	15,6	-3,4	18,6	1.539.990	37,1 %
Europako kide berriak	-35,9	7,1	6,5	58,3	-13,1	52,6	143.760	3,5 %
Europar Batasuna 27	-37,0	20,0	6,5	15,5	-0,6	11,5	1.835.283	44,2 %
Errusia	-47,0	37,9	50,4	105,5	61,5	-17,9	505.874	12,2 %
Txina	-36,4	23,5	21,7	17,4	4,7	-9,7	244.611	5,9 %
Brasil	-73,0	18,6	-52,9	6,9	39,0	-39,8	12.362	0,3 %

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2010eko datuak behin-behinekoak dira.


Iturria: Eustatek eginga, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Lan merkatua


EAEko ekonomiak hirugarren hiruhilekoan erakutsi zuen ahultasunak eragina izan zuen lan merkatuaren narriaduran, zeren eta langabeen kopuruak berriro gora egin baitzuen eta lanpostuak, ordea, galdu. Beraz, lan merkatuaren portaera txarrak bere horretan jarraitzen du eta duela ia bi urtetik aurrera enpleguak berez jasotzen zuen ibilbide negatiboan okertze nabarmena hauteman da.

Enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Lan merkatuaren narriadura beraren bilakaera aztertzen duten estatistika guztietan, inolako salbuespenik gabe, hauteman zen. Hain zuzen ere, lanpostuen galera bizkortu dela guztietan islatu da, salbuespena BAI inkesta delarik, aurreko datua hobetu baitzuen, nahiz eta oraindik balio negatibotan jarraitzen duen. Ikuspegi negatiboena BJA inkestak eskaintzen du, enpleguaren urte arteko beherakada %2,2an estimatu baitu, aurreko hiruhilekoetako eta gainontzeko estatistikek eman dutena baino askoz handiagoa delarik. Tarteko toki batean kokatzen dira hiruhilekako kontu ekonomikoak eta Gizarte Segurantzako afiliazioa. Azken estatistika honek maiztasun handiagoa dauka (hilerok argitaratzen da) eta urriko eta azaroko datuek iragartzen dute urte amaiera are okerragoa izango dela enpleguari dagokionean.

Kontu ekonomikoen estimazioaren arabera, jarduera adar guztiek bilakaera okerragoa erakutsi zuten aurreko urteko emaitzen aldean. Guztietatik, aldakuntza tasarik txarrena eraikuntzak jaso zuen berririo (%-8,0). Zehazkiago adierazita, azken sektore horrek aurreko hiruhilekoetako joerari jarraipena eman zion eta hirugarren hiruhilekoan beheranzko ibilbidea areagotu zen, bereziki bestelako eraikuntzetan eginiko inbertsioa murriztu zelako, aurrekontu publikoak orekatzeko politiken ondorioz, eta etxegintzan ere jaitsierak gertatu zirelako. Industrian, berriz, lehenagoko jaitsiera luzatu zen (%-2,1) eta zerbitzuek, turismoak bilakaera ona erakutsi bazuen ere, aurreko hiruhilekoan baino enplegu gutxiago sortu zuten (hurrenez hurren %0,7 eta %1,1).

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Enplegua guztira	-3,5	-0,9	-0,2	-0,5	-0,1	-0,4	-0,7
<i>Ekoizkertasuna guztira</i>	-0,4	1,2	1,0	1,3	1,0	1,1	1,3
Enplegua lehen arloan	-3,3	-1,0	-2,4	-6,2	-5,9	-4,5	-2,9
<i>Ekoizkertasuna lehen arloan</i>	-2,3	26,0	55,5	58,1	-8,6	-12,1	-19,3
Enplegua industrian	-9,6	-3,6	-1,7	-1,6	-1,7	-1,5	-2,1
<i>Ekoizkertasuna industrian</i>	-3,4	5,6	5,3	4,5	5,5	4,9	3,7
Enplegua eraikuntzan	-7,9	-6,9	-6,8	-8,5	-5,8	-7,6	-8,0
<i>Ekoizkertasuna eraikuntzan</i>	0,5	-3,1	-3,2	0,6	1,3	2,1	2,2
Enplegua zerbitzuetan	-0,6	0,9	1,3	1,1	1,5	1,1	0,7
<i>Ekoizkertasuna zerbitzuetan</i>	0,5	-0,3	-0,9	-0,6	-0,6	-0,1	0,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Ekoizpenaren hazkundera berririo moteldu zen arren (%0,6), enpleguaren jaitsierak lan faktorearen itxurazko produktibitatea areagotzea eta maila garrantzitsu bat (%1,3) aurkeztea ahalbidetu zuen. Zentzu horretan, lanpostu gehien galdu zituzten sektoreak, hots, industria eta eraikuntza, izan ziren gehikuntza horretan gehien lagundu zutenak. Hala ere, azken horrek enpleguaren galeran bakarrik oinarritu zuen ekoizkertasunaren hobekuntza. Beste aldetik, enplegu garbia sortu zuen sektore bakarrak, hau da, zerbitzuek, produktibitate irabazi txikia baina positiboa lortu zuten, aurreko hiruhilabeteetan jaso zituen beherakadekin bat ez datorrena.

BJA inkestak argitaratu duen informazioaren arabera, lanpostuen galerak eragin nabarmena izan zuen arlo publikoaren enpleguan (%-5,4), defizit publikoa egokitzeko hartu diren neurrien ondorioz. Kaltetuta geratu diren beste kolektibo batzuk gizonak eta gazteenak dira. Hain zuzen ere, gizonak 21.200 lanpostu galdu zituzten, emakumeen enpleguan ia inolako aldaketarik gertatu ez zen bitartean, 200 lanpostu baino ez baitziren galdu. Adinari dagokionez, lotura zuzena eta estua hautematen da landunen gaztetetasunaren eta enplegua galtzeko arriskuaren artean. Hori dela eta, termino erlatiboetan, gazteenek nabaritu zuten neurri handiagoan (%-7,7) enpleguen galera, beraien enplegu tasa lehenago ere apala zen arren.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Partaidetza tasa	55,6	55,9	56,3	55,9	56,3	56,6	56,0
- Gizonak	64,0	64,0	64,5	63,9	63,9	63,4	63,1
- Emakumeak	47,6	48,3	48,5	48,4	49,1	50,0	49,3
- 16 urtetik 24ra	32,0	31,9	32,1	31,0	31,8	31,4	29,8
- 25 urtetik 44ra	87,6	87,3	87,8	86,5	87,7	88,1	87,8
- 45 urte eta gehiago	38,1	39,3	39,6	40,0	40,1	40,4	39,9
Enplegu tasa	51,0	50,8	51,4	50,3	50,3	50,4	50,1
- Gizonak	58,6	57,8	58,4	57,1	56,8	56,8	56,0
- Emakumeak	43,9	44,2	44,7	43,9	44,1	44,4	44,5
- 16 urtetik 24ra	24,7	23,9	24,8	22,3	23,4	24,0	23,3
- 25 urtetik 44ra	79,8	78,9	80,0	77,3	77,4	77,5	77,4
- 45 urte eta gehiago	36,3	36,8	36,9	37,3	37,2	37,3	36,9
Langabezia tasa	8,1	9,2	8,8	10,0	10,7	10,9	10,6
- Gizonak	8,4	9,6	9,5	10,5	11,2	10,5	11,3
- Emakumeak	7,8	8,6	7,9	9,2	10,2	11,3	9,8
- 16 urtetik 24ra	23,0	25,1	22,5	28,0	26,3	23,7	21,7
- 25 urtetik 44ra	8,9	9,6	8,9	10,7	11,7	12,0	11,8
- 45 urte eta gehiago	4,8	6,6	6,8	7,2	7,3	7,7	7,5

Iturria: BJA (Eustat).

Biztanleria aktiboak, berriz, aurreko hiruhilabeteetako hazkundeak atzean utzi zituen, bost hiruhilekoz jarraian igo ondoren, eta partaidetza tasa %56,6tik %56,0ra gutxitu zen. Beherakada bi sexuetan gauzatu zen. Hain zuzen ere, lan eskaintza 2.500 lagunetan murriztu zen aurreko urteko emaitzaren aldean, urte arteko tasan %0,2ko jaitsiera bat delarik.

LANGABEZIAREN BILAKAERA

Mila lagun eta tasak


	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Langabeak BJA inkestaren arabera	84,2	95,9	92,5	104,2	113,1	114,9	111,4
Langabeak BAI inkestaren arabera	115,6	110,7	104,3	114,9	123,5	122,4	129,1
Langabeak SEPEren erregistroetan	120,5	132,4	128,6	133,8	146,7	148,6	140,9
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	8,1	9,2	8,8	10,0	10,7	10,9	10,6
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	11,0	10,5	10,4	10,0	10,9	11,6	12,2

Iturria: Eustat, INE eta SEPE.


Lehenago aipatu den eskariaren eta eskaintzaren portaeraren ondorioz, langabeziak gora egin zuen berriro eta %20,4ko hazkunde tasa jaso zuen aurreko urteko datuaren aldean. Hala ere, langabezia tasak behera egin zuen eta %10,9tik %10,6ra jaitsi zen, biztanleria aktiboa gutxitu zelako. Sexuen arteko banaketa aztertuta, lanik gabeko emakumeen kopurua (%25,7) gehiago hazi zen berriro gizon langabeena (%16,9) baino. Hala eta guztiz ere, termino absolutuetan adierazi behar da lana ez duten gizonen kopurua oraindik emakumeena baino askoz ere handiagoa dela. Orobat, gizonen langabezia tasa (%11,3) oraindik emakumeena (%9,8) baino handiagoa da.

Langabezia tasaren bilakaera

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua erregulatzeke dossierrei dagokienez, 2008an krisia hasi zenetik, salbuespena urte hori izan zelarik, 2011. urtea izan da datu positiboenak aurkeztu dituen, hala dossierren kopuruan nola beraiek kaltetutako langileen kopuruan. Izan ere, 2011ko urria arte metatutako dosierrak 1.124 izan ziren, aurreko urteko epealdi berean 1.630 dossier onartu ziren bitartean. Beraz, %31 murriztu dira. Beste aldetik, kaltetutako lagunen kopurua ia erdira murriztu zen, 29.404 izatetik 15.863 izatera igaro baitzen. Aldi berean, dossier motaren arabera, salbuespen bakarra lanaldia murriztekoak direla, %85,9 areagotu zirelako, gainontzeko guztiek beherakada garrantzitsuak erakutsi zituzten; zehatz-mehatz, lanaldia etetekoak %51,3 jaitsi ziren eta kontratua amaitzekoak, berriz, %13,0.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2009	2010	2010				2011	
			III	IV	I	II	III	Urria
Dossierren kopurua	2.565	1.993	364	494	380	367	268	109
Eragindako langileak	68.722	35.426	7.799	8.378	5.588	4.337	4.733	1.205
<i>Dossier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	1.170	1.051	200	614	365	417	473	76
- Behin-behineko etetea	65.574	32.349	7.228	6.843	4.938	3.603	3.781	922
- Kontratua amaitzekoa	1.978	2.026	371	921	285	317	479	207

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, lanpostu finakoak galdu ziren berriro (%-2,8), aldi baterako enplegua, gutxitu zen arren, oso tasa txikian (%-0,2) jaitsi zen bitartean. Horiek horrela izanda, krisiaren hasieran behin-behineko lanpostuak desagertu baziren ere, une hauetan gehiago murrizten ari da mugagabeko kontratua dutenena. Horixe adierazten du mugagabe bihurtutako kontratuen beherakada garrantzitsuak (%-8,0), 2010eko amaieran izan zuten gorakadaren ondoren.

Prezioak, kostuak eta soldatak

2011ko hirugarren hiruhilekoan ere ez zen aparteko tentsiorik hauteman prezioen portaeran eta BPGren deflatorea %1,9 hazi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gehiago. Beste aldetik, kontsumoko eta industriako salneurrien igoerak moteltzen jarraitu zuen, berriro energiako ekoizkinen prezioek baldintzatuta. Horiek horrela, petrolioaren goranzko

presioa aurreko hiruhilabetekoa baino txikiagoa izan zenez, adierazle horiek hazkundeak gutxitzeko joerari jarraipena eman zioten.

Soldaten kostuei dagokionez, badirudi ez direla egokitzen ari lan merkatuak bizi duen ahultasuneko inguruneari eta aurreko epealdietakoa baino urte arteko gehikuntza tasa handiagoa jaso zuten, azken hiruhilekoetan jaso zirenak baino zenbateko nabarmen altuago bat eskuratuz.

Prezioak


Prezioek, BPGren deflatorearekin neurtuta, bilakaera motela erakusten jarraitu zuten eta %1,9an kokatu ziren urte arteko tasan, aurreko datua baino hamarren bakar bat gorago. Leuntzeko joera hautematen da kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaeran, %3,2 haztetik %2,9ra igaro baita. Kapitaleko eraketa gordinaren deflatoreak, berriz, tasa apaletan (%1,2) jarraitu zuen. Azkenik, kontsumo publikoaren deflatoreak aurreko hiruhilabetearen aldean berriro jaitsi ez ezik, tamaina handiko tasa negatiboak (%-0,9) ere erakutsi zituen hirugarren hiruhilekoan.

Kontsumoko prezioen bilakaerari dagokionez, bigarren hiruhilekoan hazkunde tasak gutxitzen hasi ondoren, hirugarren hiruhilekoan beste urrats bat eman zuten moteltzeko bidean eta %2,9an kokatu ziren. Beheranzko joera hori irailean eten zen une batez (%3,0), baina azaroan %2,8ra jaitsia zen indize orokorra, apaltzeko joera berreskuratuz. Moteltze horren arrazoi nagusiak honako hauek dira: alde batetik, petrolioaren salneurriaren beheranzko norabidea eta, beste aldetik, beste lehengai batzuen bilakaera, oraindik prezio handia duten arren, aurreko epealdien aldean moteldu baitziren, ekonomia jarduerak bizi zuen galgatze testuinguruak baldintzatuta.


Prezioen bilakaera horren ondorioz, Eurogunearekiko inflazio tarte hileko batetik hurrengora gero eta txikiagoa egin zen, eta azaroan bi hamarrenetako tarte lortu zen EAEren alde. Hala eta guztiz ere, ez da alde handirik hautematen lurralde bateko eta besteko salneurrien portaeran eta urte arteko aldakuntza tasa handienak dituzten produktu taldeak (edari alkoholduak eta tabakoa, etxebizitza eta garraioa) berberak dira bi lurraldeetan. Gainontzeko taldeetan, hazkundeak apalak dira eta haietako batzuetan urte arteko tasa negatiboak jaso dira. Alde handiena medikuntzan gertatu da, EAEn prezioak %2,3 jaitsi diren bitartean Eurogunean %1,8 garestitu direlako.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Azpiko inflazioari dagokionez, indize orokorrak bezala, horrek ere moteltzeko joera nabarmena erakutsi zuen (%2,2 bigarren hiruhilekoan eta %1,7 hirugarrenean), gero hazkunde tasa egonkortzeko. Beheranzko joera gelditu izana, bereziki, tabakoak izan zuen garestitzearen ondorio zuzena da, gainontzeko taldeek beherantz egin zutelako. Horrek garbi adierazten du ekonomiaren hazkundera oraindik ahula dela.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2009	2010	2011			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazioa guztira (%100)	0,3	1,7	3,4	2,9	2,8	2,8
Azpiko inflazioa (%83,5)	1,1	0,7	2,2	1,7	1,7	1,5
- Landutako elikagaiak (%13,4)	1,2	0,7	4,2	3,7	4,7	0,6
- Industriako ondasunak (%28,4)	-0,9	-0,2	1,1	0,3	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%41,7)	2,5	1,4	2,3	1,9	1,8	0,8
Hondarreko inflazioa (%16,5)	-3,6	6,6	9,8	9,5	8,1	1,3
- Landugabeko elikagaiak (%6,8)	0,2	0,2	1,7	1,4	0,6	0,0
- Energia (%9,7)	-7,3	11,5	15,6	15,4	13,4	1,3

Iturria: INE.

Beraz, guztiek izan zituzten aurreko hiruhilabetekoak baino gehikuntza tasa txikiagoak. Alde batetik, elikagaiek aurreko hiruhilabeteko %4,2tik hirugarren hiruhilabeteko %3,7ra igaro ziren, nahiz eta azaroan tabakoaren garestitzeak indizea gorantz eraman zuen. Energiakoak ez diren industriako ondasunen prezioek ere beherantz egin zuten, aurreko urtean BEZ zergan onartu ziren igoeren eragina desagiten hasi zelako. Azkenik, zerbitzuek ere gutxiago garestitu ziren, arrazoi beragatik, ekitaldian zehar turismoaren eskariak sendotasun handia erakutsi bazuen ere.

Beste aldetik, inflazio orokorraren ia erdia KPIren beste osagai nagusiak, hots, hondarreko inflazioak eragin du berriro. Zehazkiago adierazita, hondarreko inflazioak ia ez zuen aldaketarik izan aurreko hiruhilekoaren aldean, %9,8tik %9,5era bakarrik apaldu delako. Izan ere, landu gabeko janariak eta energiako ekoizkinek ia bere horretan utzi zituzten urte arteko tasak. Elikagai freskoen garestitzea %1,7tik %1,4ra murriztu zen eta energiak ez zuen beheranzko joera hartu azken hilabeteak arte.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2009	2010	2010			2011	
			IV	I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	0,3	1,7	2,4	3,4	3,4	2,9	2,8
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,1	-0,7	0,3	1,4	2,4	2,4	2,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	8,4	10,7	10,4	14,6	10,6	6,2	9,9
Jantziak eta oinetakoak	-1,4	-0,2	0,4	0,3	0,5	0,1	0,6
Etxebizitza	1,9	3,1	5,0	7,8	8,4	8,1	7,0
Etxeko hornidura	1,8	0,9	1,4	1,9	1,7	1,0	1,3
Medikuntza	-0,2	-0,1	-0,3	-0,2	0,0	-0,5	-2,3
Garraioa	-5,3	6,5	7,3	9,2	8,1	7,4	6,8
Komunikazioak	-0,6	-0,7	-0,7	-0,7	0,3	-1,2	-1,5
Aisia eta kultura	0,3	-0,9	-0,2	0,0	0,4	0,2	0,4
Irakaskuntza	4,2	2,2	2,4	1,7	1,1	1,0	1,3
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	2,4	1,7	2,1	2,1	2,0	1,7	1,1
Besteak	2,5	2,1	2,7	3,1	2,9	2,5	2,3

Iturria: INE.

Energiaren bilakaera horrek, euroak dolarraren aldean izan zuen balio galeraren eragina nabaritu baitzuen, etxebizitza eta garraioa bezalako taldeak inflazio tasa handienak izatea

ahalbidetu zuen. Horiek horrela izanda, lehen taldean nabaria zen gasaren eta argindarraren garestitze handiagoak, eta bigarrenak erregaien prezio altuagoak eta baita automobilen garestitzea hauteman zituen. Bi talde horiei gehitu zitzairen edari alkoholodunak eta tabakoa, aurreko epealdien aldean gutxiago garestitu baziren ere, oso maila altuetan jarraitu baitzuen, industria horretako izaera oligopolio batena delako.

Kontrako norabidean, nabarmendu behar da komunikazioen eta medikuntzaren bilakaera. Lehenengoak puntu bat eta erdi gutxitu zuen bere tasa, %-1,2an kokatu arte, telefoniako zerbitzuen prezioak jaitsi zirelako, aurreko urtean igo ziren bitartean. Medikuntza taldeko bilakaera (%-0,5), berriz, botiken eta farmazietako beste produktuen merkatzeak eragin zuen, bereziki.

IPRI indizeari dagokionez, hirugarren hiruilekoan zehar motelduz joan zen, energiako prezioen goranzko portaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkatuta dauden gainontzeko taldeen apaltzeak konpentsatu zuelako. Bereiziki, bitarteko ondasunen salneurrien bilakaera nabarmendu behar da, bigarren hiruilekoan jaso zuten %7,2tik urrian estimatu zen %4,5era gutxitu baitzuten beren hazkunde tasa. Beste aldetik, hala kontsumorako ondasunek nola ekipamendurako ondasunek askoz ere garestitze txikiagoak izan zituzten, %2,0aren eta %2,5aren artekoak. Beheranzko joera horrek agerian uzten du nolabaiteko laxatzea lehengaien prezioetatik eratortzen ziren presioetan. Orobat, enpresak deskontuak egiten ari dira eskariaren ahultasunari aurre egiteko. Hala eta guztiz ere, industriako prezioen igoerak oraindik oso altuak dira, zeren eta urrian %7,0an kokatuta baitzeuden.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			IV	I	II	III	Urria
Indize orokorra	-6,0	3,3	5,2	9,1	7,8	7,3	7,0
Kontsumoko ondasunak	0,5	0,2	1,4	2,7	2,6	2,2	2,2
- Kontsumo iraunkorrak	0,2	-0,5	-0,2	0,5	0,4	0,5	0,7
- Kontsumo iragankorrak	0,6	0,5	2,1	3,6	3,5	3,0	2,8
Ekipamendurako ondasunak	1,3	0,1	0,6	2,0	1,9	2,2	2,4
Bitarteko ondasunak	-7,9	3,1	6,4	8,9	7,2	5,5	4,5
Energia	-14,6	11,7	11,2	23,8	20,4	21,9	23,2

Iturria: Eustat.

Lan kostuak eta soldatak

2011ko hirugarren hiruhilekoan, lan kostuak %2,5 igo ziren euskal autonomia erkidegoan, Estatu osoan jaso zen batez bestea (%1,5) nabarmen gaituz. Emaita horren ondorioz, urteko lehen erdian jaso zen kostuak gutxitzeko joera etenda geratu da. Bi osagai nagusietatik, soldatukoak ez diren kostuak izan ziren joera aldaketa hori neurri handiagoan eragin zutenak, urte arteko tasan %8,0 hazi zirelako. Aitzitik, soldatuko kostuak oso gutxi hazi ziren eta bertan langile publikoen soldata jaitsiera langile pribatuaren igoera batekin tartekatzen da. Soldatukoak ez diren kostuen artean, iraizte sarien gorakada nabarmentzen da, enpleguak beheranzko erritmoa areagotu duen une batean. Kostuen gorakadak eragin berezia izan zuen zerbitzuetan, %-1,8 batetik %3,1era areagotu baitzuten beren hazkundera. Aitzitik, industrian nolabaiteko moteltzea hauteman zen eta eraikuntzan oso igoera txiki bat baino ez.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	2,8	1,4	2,2	0,4	-0,5	-0,4	2,5
- Soldata kostuak	2,8	2,0	2,4	1,0	0,1	-1,2	0,7
- Bestelako kostuak	2,8	-0,4	1,4	-1,4	-2,4	1,9	8,0
Kostu osoa industrian	0,8	2,3	3,9	1,0	-0,8	3,2	2,5
Kostu osoa eraikuntzan	0,0	-0,3	0,9	-1,6	3,6	1,8	2,2
Kostu osoa zerbitzuetan	4,5	1,4	1,6	0,4	-0,8	-1,8	3,1

Iturria: INE.

Benetan lan egindako orduen analisiak lan kostuen goranzko joera areagotzen du. Izan ere, hirugarren hiruhilabeteko gehikuntza tasa %4,4ra iritsi zen EAEn (%4,8 Estatuko batez bestea), 2010ean eta 2011ko lehen erdian jasotako balioak nabarmen gaituz. Aldagai horretan gehikuntza garrantzitsu bat hauteman da soldataz bestelako kostuetan (%9,9), baina baita soldatuko kostuetan ere (%2,6), lan merkatuan bizi diren zailtasunekin eta epealdi horretan enpleguak pairatu zuen jaitsiera garrantzitsuarekin bat ez datorrena. Sektoreka, guztiek areagotu zituzten beren kostuak modu garrantzitsu batean eta atzean utzi zituzten aurreko epealdietako beherakadak.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	5,4	0,6	-0,2	1,0	-2,9	-1,4	4,4
- Soldata kostuak	5,5	1,2	0,1	1,6	-2,3	-2,2	2,6
- Bestelako kostuak	5,4	-1,1	-0,9	-0,9	-4,8	0,9	9,9
Kostu osoa industrian	5,8	0,3	-0,5	0,1	-6,3	-1,8	3,8
Kostu osoa eraikuntzan	2,1	0,7	-0,6	-0,7	0,1	-1,4	4,3
Kostu osoa zerbitzuetan	6,3	0,6	-0,3	1,4	-1,9	-1,2	5,2

Iturria: INE.

Azkenik, hitzarmen kolektiboez adierazi behar da 2011ko negoziazio kolektiboak, neurri handi batean, blokeatuta jarraitzen duela, krisiaren egoerak berak baldintzatuta, baina baita ere enpresariak Espainiako gobernu berriak ezarriko duen lege markoa ezagutu nahi duelako negoziazioei ekin baino lehen. Horiek horrela, urtean zehar sinatutako hitzarmenak pisu txikia dute oraindik 2011ko guztizkoan eta izenpetu diren gehienak aurreko urteetan adostutako hitzarmenak eta 2011n berrikusitakoak dira, urte horretan ere eragin ekonomikoak dituztelako. Hori dela eta, adostutako igoera altu samarra da, kontuan hartuta erreferentzia nagusia KPI indizeak 2010eko abenduan izan zuen urte arteko tasa (%2,8) delako. Hala arloko hitzarmenek nola enpresakoek aurreko urteko inflazioaren datua gainditzen dute.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2007	2008	2009	2010	2011(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,2	5,0	2,7	1,9	3,6
- Urtean zehar sinatutakoak	4,1	4,8	2,8	1,7	3,4
Negoziazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,2	5,2	2,8	1,7	3,8
- Enpresako hitzarmenak	4,2	4,1	2,6	2,4	3,0

(*)2011ko urrira arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Diru sarrera arrunten benetako bilakaera islatzen ez duen portaera batek baldintzatu zuen Eusko Jaurlaritzako finantzaz bestelako eragiketen iraila arteko saldoa. Alde batetik, 2011. urtean Lanbideek kudeatzen dituen enplegurako politika aktiboen transferentziatik eratortzen diren diru sarrerek gorantz eraman zituen sarreren guztizkoa. Beste aldetik, eta are garrantzitsuagoa dena, foru aldundiek ekartzen dituzten diru sarrerak kontabilizatzeko irizpidea aldatu zen. Horren ondorioz, urte amaiera arte itxaron beharko da diru sarreren benetako bilakaera zein izan den ezagutzeko, foru aldundien azken ekarpenarekin egingo diren doikuntzak egin eta gero.

Gastuen atalari dagokionez, moteltzeko joera hauteman zen aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean (hurrenez hurren, %3,8 eta %4,5), batez ere langileen gastuetan (%-1,7) gertatu zen beherakadaren ondorioz. Aurrekontuetan ezarri diren hersturako planei jarraituz, erosketa garbiak ez igotzeaz gain, enplegu publikoa murriztu zen, horrekin batera lehenago aipatu diren langileen gastuak gutxituz. Azkenik, finantza gastuak nabarmen areagotu ziren, zor publikoaren jaulkipenak sortu zituen ordainketen ondorioz, nahiz eta atal horretako gehikuntza aurreko hiruhilabeteetako baino txikiagoa izan den.

EUSKO JAURLARITZAKO AURREKONTUEN ERAGIKETA (2011ko urtariletik irailera)

Mila eurotan

	2010	2011	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	5.308.682	6.672.156	25,7
2. GASTU ARRUNTAK	5.781.379	6.002.917	3,8
Langileen gastuak	1.407.871	1.383.750	-1,7
Funtzionamenduko gastuak	2.282.527	2.289.383	0,3
Finantza gastuak	21.173	80.879	282,0
Transferentzia arruntak	2.069.808	2.248.905	8,7
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	-472.697	669.239	-
4. KAPITALEKO SARRERAK	27.610	66.883	142,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	538.929	408.415	-24,2
Inbertsio errealak	104.087	129.587	24,5
Kapitaleko transferentziak	434.842	278.828	-35,9
6. FINANTZA AHALMENA (+) EDO BEHARRA (-) (3+4-5)	-984.016	327.707	-

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Ekonomiaren portaera txarrak eragin negatiboa izan zuen zergen bidezko diru bilketan. Hain zuzen ere, 2011ko urria arte kontabilizatu ziren diru sarrera likidoak 8.821 milioi eurora iritsi ziren, 2010eko urria arteko diru bilketarekin alderatuta %2,6ko beherakada bat delarik. Hala eta guztiz ere, Arabako Foru Aldundiak BEZ zergen aurreko ekitaldiko martxoan jaso zuen ezohiko diru sarrerak jaitsiera hori baldintzatzen du. Diru sarrera hori ez bada kontuan hartzen, diru bilketaren emaitza positiboa baina oso txikia izango zen.

Zuzeneko zergen diru bilketak aurkeztu zuen bilakaera onena, hala sozietateen gaineko zergen nola pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen jaso diren igoerek egiaztatzen dutenez. Zehazkiago adierazita, azken zerga honen diru bilketa %7,4 areagotu zen eta diru gehien biltzen duen zerga izaten jarraitzen du. Hazkunde horren atzean hainbat arrazoi daude, hala nola lanaren etekinen gainean egiten diren atxikipenen igoera, kuota diferentzial garbiaren emaitza horren negatiboa ez izana eta kapital higiezinaren etekinen gehikuntza, etxebizitzak alokatzeko merkatuaren bilakaerarekin bat eginez.

Zuzeneko zergen artean dagoen beste zerga handiak ere, hots, sozietateen gaineko zergak ere hobekuntza nabarmena izan zuen, urria arteko diru bilketa %12,4 areagotu zuelako, ordainketa arauetan ezarri ziren aldaketengatik (tipoen igoera eta konpentsatzeko mugak) eta itzulketen beherakada biziarengatik. Orobat, konturako bigarren ordainketak oso nabarmen hobetu zuen lehen ordainketaren emaitza.

Aitzitik, zeharkako zergetan, gehienak aurreko ekitaldian baino gutxiago biltzen ari dira. Izan ere, balio erantsiaren gaineko zergak oso emaitza negatiboak (%-6,6) aurkeztu zituen, baina datu horiek positiboak izango ziren alderaketa homogeneo bat egingo bagenu eta, horretarako, BEZ zergen Rover automobil enpresari zegokion ezohiko ordainketa kontuan hartuko ez bagenu.

Zerga bereziei dagokienez, hauek ere beherantz egin zuten (%-7,5) eta bakarrik diru gutxi biltzen dutenek lortu zuten igoera bat, hala nola alkoholaren gaineko zergak (%2,1) eta garagardoaren gainekoak (%4,9). Gainontzekoek beheranzko joerari eutsi zioten eta, esate baterako, hidrokarburoen gaineko zergak, pisu handiena duena baita, %5,8 gutxitu zuen bere diru bilketa, erregaien kontsumoak izan zuen beherakadaren ondorioz. Tabakoaren gaineko zergak, berriz, ekitaldiko emaitzarik negatiboenak erakutsi zituen (%-12,9) eta zigarreten batez besteko garestitzeak ez zuen konpentsatu kontsumoaren jaitsiera. Azkenik, argindarraren gaineko zergak ere behera egin zuen (%-9,6), kontsumoaren ahultasunarengatik eta 2010. urtean ezohiko diru sarrerak kontabilizatu zituelako.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2011ko urtariletik urrira)

Mila euro


ZERGAK	Diru bilketa			
	2010	2011	Aurrekon. %	11/10 aldak. %
PFEZ	2.963.154	3.183.323	74,8	7,4
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.403.644	3.529.152	79,1	3,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	189.278	173.026	74,0	-8,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	63.380	65.279	74,6	3,0
- Ondare irabazien atxikipenak	15.226	12.739	67,4	-16,3
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	125.978	121.620	71,1	-3,5
- Kuota diferentzial garbia	-834.352	-718.493	99,8	13,9
Sozietateen gaineko zerga	987.242	1.109.182	106,2	12,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	189.278	173.026	74,0	-8,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	63.380	65.279	74,6	3,0
- Ondare irabazien atxikipenak	15.226	12.739	67,4	-16,3
- Kuota diferentzial garbia	719.358	858.138	121,8	19,3
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	100.610	77.875	66,1	-22,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	54.361	63.342	77,9	16,5
Ondarearen gaineko zerga	2.944	2.750	97,6	-6,6
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	4.108.312	4.436.472	80,7	8,0
BEZaren bertoko kudeaketa	2.627.696	2.455.079	62,6	-6,6
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	120.053	80.885	49,0	-32,6
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	69.135	48.562	52,2	-29,8
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	29.024	20.373	49,8	-29,8
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.223.772	1.131.691	68,6	-7,5
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	37.409	36.743	67,9	-1,8
Aseguru sarien gaineko zerga	59.299	60.445	74,4	1,9
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.166.388	3.833.778	63,8	-8,0
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	84.022	84.705	77,5	0,8
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	8.358.722	8.354.955	71,9	-0,0
BEZaren doikuntza	792.023	546.678	52,9	-31,0
Zerga berezien doikuntza	-90.871	-80.026	54,3	11,9
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	9.059.874	8.821.607	70,6	-2,6

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

2011ko hirugarren hiruhilekoan zehar, zor subiranoaren krisia, hasieran Euroguneko eremura mugatuta baitzegoen, beste etapa batean sartu zen eta finantza arloko tentsioak areagotu ziren. Horren ondorioz, arrisku sariak oso bizkor igo ziren eta burtsa zein truke merkatuetan gorabehera handiak bizi ziren.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Zor subiranoaren krisiak izan zuen larriagotzea ez zen finantza laguntzako egitasmoak zituzten herrialdeetara mugatu eta tamaina handiagoko ekonomietara ere hedatu zen. Zehazkiago azalduta, krisiak eragina izan zuen Eurogunea osatzen duten 17 herrialdeetatik 10etan, nahiz eta intentsitate ezberdinean eragin. Izan ere, lehen taldean erreskatatuak izan diren herrialdeak daude, Portugal, Irlanda eta, bereziki, Grezia. Azken honen diferentziala Alemaniako *bund*-arekiko 3.400 oinarri puntutik gora kokatu zen abenduaren erdialdean. Txipre talde horretakotzat jo daiteke, zor publikoaren interes tasa %10etik gorakoa baita.

Talde horren atzean Espainia eta Italia kokatzen dira. Bi herrialde horietan, kredituaren kalitatea jaitsi izana eta defizita zuzentzeko prozesuak sortu duen sinesgarritasun eza dira diferentzialak horrenbeste igotzeko arrazoiak. Izan ere, azaroan, Italiako egoera politikoak eta herrialde hartako emaitza ekonomiko txarrek arrisku saria 570 puntuetara igoarazi zuten. Aldi berean, kutsatze efektuak Espainiako arrisku saria 417 puntuetara eramane zuten. Egoeraren larritasunaz jabetuta (diferentzialak 500 puntuak gainditu zituenean Portugal, Irlanda eta Grezia erreskatatu ziren), EBZ herrialde horietako zorra erostera behartuta egon zen. Dena dela, diferentzialak handiak izan ziren oraindik eta, harez geroztik, Italiakoa Espainiakokoren gainetik dago. Azkenik, herrialde horiei beste batzuk gehitu zaizkie, hala nola Belgika, non arrisku saria 360 puntuak gainditzera iritsi baitzen, Eslovakia (200 puntutik gora), Austria (uda baino lehen 40 puntu ordaintzen zituen eta azaroan 185 puntu), eta Frantzia, greziar eta italiar zor publiko asko zituenez azaroan diferentziala 190 puntuetara igo baitzen.


Euroguneko KPI indizea urrian %3,0an kokatu bazen ere, EBZren talde berriak lehentasuna eman zion ekonomiaren egoera zailari prezioen bilakaerari baino, eta bi aldiz jaitsi zituen esku-hartzeko interes tasa 25 oinarri puntu banatan, abenduan %1,0an utzi arte. Halaber, Europako bankuen gainean zegoen tentsioa baretzeko, bankuek eskatu zezaketen diruaz mugarik ez zuten beste bi enkante iragarri zituen, eta guztiz konprometituta agertu zen finantza egonkortasuna eta merkatuetako funtzionamendu egokia berreskuratzeko behar ziren aparteko neurriekin. Erreserba Federalak, Ingalaterrako Bankuak eta Japoniako Bankuak, berriz, ez zuten erreferentziako tasak aldatu eta inoizko baliorik apalenetan utzi zituzten. Orobat, ordura arte onartu zituzten ezohiko neurriei eustea eta, beharrezkoa izatekotan, ekonomiaren hazkundea suspertzeko neurri berriak hartzea erabaki zuten.

Ekonomia aurreratuetako eta garapen bidean dauden herrialdeetako banku zentralen artean egon den dikotomia pausoz pauso gutxitu da. Izan ere, uda arte, garapen bidean dauden herrialdeetako banku zentralek, inflazioa kontrolatzeko asmoz eta sor daitezkeen burbuilei aurre egiteko, interes tasak igo zituzten eta bestelako neurri murriztaileak onartu zituzten beren ekonomien hazkunde biziegiei erantzuteko. Baina udatik aurrera adierazle ekonomikoek moteltzeko joera erakutsi dute eta, horren ondorioz, bertako banku zentralek neurri monetarioak laxatzea erabaki zuten. Zehazkiago adierazita, Brasileko Bankuak interes tasa jaitsi

zuen azaroan %11,0an utzi arte (uztailean %12,5ean zegoen). Txinan, berriz, erreferentziako tasa ofizialak eta erreserbako koefizienteak aldaketarik gabe geratu ziren, moneta politika gogortzeko lehenago onartu ziren neurriekin amaituz.

Dibisa merkatuetan tartekatu ziren gorakadak eta beherakadak areagotu zituzten alderdi nagusiak ekonomiaren moteltzeari aurre egiteko banku zentralak hartu zituzten erabakiak eta inbertitzaileek arriskua gehiago saihesteko nahia izan dira. Horiek horrela, euroak, datu ekonomiko bakoitza argitaratutakoan nozitzen zituen gorabeherak alde batera utzita, balioa galdu zuen dibisa nagusien aldean, bereziki dolarraren aldean. Zehazkiago, urrian euro baten truke 1,31 dolar ordaindu ziren, 2011ko urtariletik inoiz izan duen baliorik apalena baita.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko



Iturria: Espainiako Bankua.


Europako diruak yenaren aldean eta Suitzako frankoaren aldean ere galerak izan zituen, halako moldean ezen moneta agintariek truke merkatuetan esku hartu behar izan baitzuten truke tasaren gorakada geldiarazteko. Ekintza horren ondorioz, euroak balioa berreskuratu zuen Suitzako frankoaren aldean, baina ez, ordea, yenaren aldean, Europako zorraren krisiarengatik eta estatubatuar ekonomiaren gainean dauden aurreikuspen zalantzagarriengatik babes dibisa gisa hartzen baita. Izan ere, txosten hau argitaratzeko unea arte, Japoniako gobernuak, arrakasta gutxiarekin, lau aldiz esku hartu du dibisen merkatuan bere dirua merkatzeko (azkena urriaren 31n), baina yenak, balioa galdu beharrean, goranzko joera leunari jarraipena eman dio eta euroarekiko kotizazioa 101 yenetara iritsi da.

Ekonomiaren arazoez eta arriskua gehiago saihesteko nahiak errenta aldakorrek merkatuak ere baldintzatu zituzten. Horrek muturreko gorabeherak eragin zituen eta arrisku gutxiago duten aktiboetara, hala nola urrera edo kalitate handiko enpresen errenta finkora, bideratu zituen fluxuak. Izan ere, Europako eta AEBetako burtsa nagusi guztiek galera garrantzitsuek jaso zituzten irailean eta urrian. Bakarrik Euroguneko estatu buruek urriaren 26an egin zuten bilerak ahalbidetu zuen indizeek galdutakoaren zati bat azaroaren hasieran berreskuratzea. Hobekuntza horrek gutxi iraun zuen, gehikuntza zati handienak atzera egin zuelako Greziako lehen ministroak, ezustean, bere herrialdean erreferendum batera dei egingo zuela jakinarazi zuenean. Izan ere, abenduaren hasieran indize nagusi guztiek, salbuespen bakarra Down Jones izan zelarik (%4,1), beherakada garrantzitsuek jaso zituzten urte hasierako kotizazioen aldean. Ibex-35ek 8.500 puntuko maila berreskuratzea lortu zuen, baina urte osoan metatutako galerekin %12 gaititu zuten.


Interes tasen bilakaera

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.


Interes tasa ofizialak gutxituko zirelako igurikimenek, azaroan baieztatuta geratu baitziren, bankuen arteko interes tasak nolabaiteko egonkortasunean egotea, beheranzko joera arin batekin, ahalbidetu zuten, urria arte iraun duena. Hori horrela izanda, hiru hilekorako eta urtebete baterako euriborra, hurrenez hurren, %1,48an eta %2,04an kokatu ziren, 2011ko apirileko mailak berreskuratuz.

Espainiako Bankuak bankuen maileguez egiten duen inkestaren arabera, finantzaziorako kostu handiagoek (hipoteka eragiketa berrietarako interes tasa bigarren hiruhilabeteko %3,43tik hirugarreneko %3,64ra igo zen, eta kontsumoko eragiketen erreferentziako tasa %8,21etik %8,71ra igo zen epealdi berean), interesez bestelako gastuen gehikuntza arinak eta kreditu berriei lotuta dauden konpromisoek azaltzen dute finantzaziorako eskaera gutxiago egon izana, bai enpresa pribatuen atalean bai familien multzoan. Hala eta guztiz ere, arlo pribatuari emandako kreditu osoa 786,2 milioi eurotan igo zen, aurreko urteko epe beraren aldean %1,0ko tasa bat delarik. Kudeatu ziren eskaerak gutxitu zirenez, pentsatzekoa da eman ziren kredituak aurreko hilabeteetan tramitatu zirenak baino zenbateko handiagokoak izan zirela.


Kreditu eta gordailuen bilakaera EAEn

Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Zorren igoerarekin bat eginez, berankortasuneko ratioa %3,89ra igo zen, urteko bigarren hiruhilekoko baino bi hamarren gehiago eta krisi ekonomikoa hasi zenean zegoen berankortasun maila baino hiru puntu gehiago delarik. Hala ere, oraingoz tasa hori ez da arazo bat sistemaren kaudimenerako eta, are gutxiago, Espainian dagoen berankortasuneko

mailarekin alderatzen bada, zeren eta lurralde horretan berankortasunak %7,42ko langa gáinditu baitu, azken 16 urteko mailarik gorena delarik.

Azkenik, gordailuak berriro moteldu ziren uztailaren eta irailaren arteko epealdian, beste jaitsiera bat jaso arte, oraingoan %1,4koa. Aurreko hilabeteetan ez bezala, urteko hirugarren hiruhilekoan aurrezki eta eperako gordailuak izan dira gutxitu direnak, beharbada banku gordailuak balio seguruagoetara zuzendu direlako. Izan ere, zor publikoa da bankuen gordailuen lehiakiderik nagusia. Altxorraren Letrek eskaintzen duten errentagarritasunak eta segurtasunak (azken enkanteetan %5etik gora ordaindu dira 12 eta 18 hilabeteetakoak) EAEko eragileak eraman dituzte beren aurrezkiak finantza aktibo horietara eramatera. Hala ere, EAEko gordailu pribatuek 73.119 milioi euroak gáinditu zituzten eta inoizko baliorik gorenetan jarraitu zuten.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

2011ko azken txanpan, kezka handia dago ekonomiaren etorkizunaz eta adierazle ekonomikoetan agertu diren hobekuntza zantzu gutxien iraunkortasunaz. Zeuden arrisku horietako batzuk azkenean gauzatu dira eta hazkunde aurreikuspenek okerrerantz egin dute. Finantza merkatuetako etengabeko narriadura, neurri handi batean eragileen konfiantza eza islatzen baitu, nazioartean dagoen ezinegonaren arrazoi nagusietako bat da. Egoera gaiztotzen duen beste elementu bat Europako batasun monetarioko hainbat herrialdetako zorraren krisia da. Ekonomia testuinguru honek arrisku garrantzitsuak sortu ditu finantza merkatuetan, ekonomia errealer ere igaro direnak. Ziurgabetasunaren igoerak eta finantzazioko gastu handiagoek osatzen duten konbinaketa arriskutsua oso kaltegarria izan daiteke ekonomia jarduera errealerako datozen hiru hilekoetan.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
Munduko ekonomia	4,3	3,0	2,9	2,8	3,8	2,9
AEB	3,0	1,8	2,1	1,6	3,2	2,1
Kanada	3,2	2,3	2,0	1,8	2,9	2,0
Japonia	4,1	-0,4	2,1	-0,7	-0,3	-0,2
Eurogunea	1,8	1,6	0,4	1,6	2,7	1,8
Europar Batasuna	1,9	1,6	0,7	1,8	2,9	2,0
Alemania	3,7	2,9	0,8	1,1	2,3	1,8
Espainia	-0,1	0,7	0,5	1,8	3,1	1,6
Frantzia	1,4	1,6	0,7	1,5	2,1	1,6
Herbehereak	1,6	1,7	0,5	1,3	2,3	1,8
Italia	1,2	0,6	-0,2	1,5	2,7	2,0
Erresuma Batua	1,8	1,0	1,1	3,3	4,5	2,8
Asia eta Ozeano Barea	7,0	4,5	5,2	2,6	3,6	2,7
Ekialdeko Europa	4,5	4,3	3,3	6,6	6,4	6,0
Amerika Latinoa	6,3	4,2	3,9	6,6	6,8	6,4


Iturria: Consensus Forecast (2011ko azaroa).

Hazkunde ahula eta langabezia tasa altua izanik, AEBetako gobernuak politika ekonomikoko neurri sorta handi bat aurkeztu du. Ekimen horiek finantzatzeko, datozen urteetan diru sarrerek areagotuko dituzten eta gastuak gutxituko dituzten neurriak konbinatuko dira. Aldi berean, Erreserba Federalak moneta politika hedakorrago bat onartuko du susperraldiari laguntza emateko eta finantza merkatuetarako giro hobea sortzeko.


BPGren bilakaera eremuka

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina




Iturria: ELGE 2011ko azaroko aurreikuspenak.

Estatubatuar ekonomian, bultzagile nagusia izatearen itxaropena inbertsioan datza, kontuan hartuta kontsumo pribatua egoera txarrean dagoela lan merkatuak bizi duen egoera

zailarengatik eta familien errenta erabilgarriak nozitu duen beherakadarengatik. Interes tasak apalak direnez, zerga bidezko pizgarriak daudenez eta barne finantzaziorako baliabide gehiago dagoenez, enpresen inbertsioak, beharbada, bizitasun garrantzitsua ezagutuko du datozen hiruhilekoetan. Benetako truke tasa errearen jaitsierak eragin positiboa eduki behar du AEBetako esportazioetan.

Aurreko guztiaren ondorioz, Consensus Forecastek estimatu du AEBak %1,8 haziko direla 2011. urtean eta %2,1 hurrengo urtean. Hala eta guztiz ere, defizit publikoa gutxitzeko politika fiskala espero dena baino gogorragoa bada, estatubatuar ekonomiaren hazkundera txikiagoa izan daiteke.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Garapen bidean dauden herrialdeetan ez da moteltze garrantzitsurik espero, ezta atzeraldian erortzeko arriskurik ere. Inolako zalantzarik gabe, oso litekeena da 2012. urtean Asia izatea mundu osoan hazkunde tasa handiena aurkeztuko duen eremua. Ekonomia adierazle gehienek iradokitzen dute azaleratzen ari diren herrialdeetako hazkunde tasa biziak jarraituko dutela, nahiz eta gorakaden erritmoa beharbada motelagoa izango den 2012. urtea aurrera joango den heinean. Hazkunderaren apaltze hori, neurri batean, herrialde askotan barne eskariaren gehiegizko igoera gutxitzeko onartu ziren politika ekonomikoen ondorioa izango da. Horren adibiderik esanguratsuena Txina da, non politika ekonomikoak higiezin merkatuaren gorakada biziari, kredituen gehikuntza orokor eta gehiegizkoari zein kontsumoko prezioen

indizearen igoerari aurre egin beharko dien. Hala eta guztiz ere, Consensus Forecastek estimatu du Itsaso Barean dauden Asiako herrialdeak, oro har, %4,5 eta %5,2 haziko direla, hurrenez hurren, 2011n eta 2012an. Estimazio horietan Japoniarako hazkunde aurreikuspenak ere daude sartuta. Kontuan hartu behar da herrialde horretan, 2011ko hasieran nozitu zuen hondamendiaren ondoren, ekoizpenak suspertzeko bultzada garrantzitsu bat izango duela kaltetutako eremuak berriro eraikitzeko.

Eurogunearen hazkundeak oso ahula izaten jarraituko du 2011ko azken hilabeteetan eta 2012. urte osoan. Hainbat iturriren arabera, datozen hiruhilekoetan atzeraldian sartzeari litekeena da. Euroguneak bizi duen ezegonkortasun handiaren jatorria periferiako ekonomietan dago eta beraien finantzazio arazoak gainontzeko herrialdeetara hedatzeko arriskuan. Ziurgabetasun gero eta handiagoak eta konfiantza ezak ibilbide zaila erakusten dute eremu horretako bilakaera ekonomikoan datozen hiruhilekoetan. Egoera horren arrazoi nagusiak finantza merkatuetako tentsioak dira, Europan bizi den zor subiranoaren krisiarengatik. Kontsumitzaileen eta enpresarien konfiantzak izan duen narriadurak barne eskariak etorkizunean ahultasun nabarmena pairatuko duela iradokitzen du.

Berriro atzeraldian sartzeari saihestuko duen susperraldi baten itxaropenak, neurri batean bakarrik bada ere, Europako Banku Zentralean eta beraren politika monetarioan dautza. Interes tasa apalak eta zorraren krisiak kaltetutako bankuentzat finantzaziorako lerro berriak aurreikusten dira. Horixe gertatu da abenduaren 27an likidezia enkantearekin hiru urterako, zeinean EBZk europar bankuen eskura ia 500.000 milioi euroko dirutza jarri baitzuen. Baikortasunerako beste zutabe bat izango da herrialdeetako gobernuek etorkizunean onartuko dituzten politiken eraginkortasuna. Herstura fiskala eta egiturazko erreformak izango dira neurri sakonenak ekonomietan. Oro har, eta Consensus Forecasten arabera, hazkunde neurritsua espero da 2011. urterako, %1,6an estimatua, eta askoz ere txikiagoa, %0,4, hurrengo urterako.

Espainiako ekonomia datozen hiruhilekoetan haziko denaren aurreikuspenak nabarmen okertu dira gastua murrizteko egitasmoek barne eskarian izango duten eraginarengatik. Beste aldetik, egitasmo horiek ezinbestekoak dira Ekonomia eta Moneta Batasunetik defiziterako markatu diren helburuak bete nahi badira. Hazkundearen etorkizuneko aurreikuspenak beherantz berrikustera behartu duten beste faktore batzuk nazioarteko testuinguruaren igurikimen ezkorragoak eta Europako zorraren krisi larria dira.

Nazio eskariak oso ahul izaten jarraituko du eta berau suspertzea zaila izango da, kontuan hartuta espainiar ekonomian pilatu diren desorekak oraindik ez direla behar bezala doitu.

Horri erantsi behar zaio zor publikoaren kostuaren igoerak izango duen eragin murriztailea eta gobernua gastu publikoa murrizteko neurri garrantzitsuak onartzera behartuko duena.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2011ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoen eta bestean	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
AFI	0,7	0,0	0,0	-0,1	-1,7	-3,5	-4,8	-3,6	-7,9	-5,1	2,2	-0,4
BBVA	0,8	1,0	0,0	0,3	-1,3	-2,3	-4,3	-0,2	-7,6	-2,5	3,2	4,4
Bankia	0,7	0,0	0,0	-0,2	-1,5	-3,9	-4,6	-3,7	-7,8	-6,4	2,9	1,7
Catalunyacaixa	0,7	0,1	0,1	-0,2	-1,4	-1,0	-4,8	-3,9	-8,0	-7,6	2,7	1,3
Cemex	0,7	0,0	0,0	-0,2	-1,5	-3,4	-4,6	-3,7	-8,0	-6,9	2,4	-0,5
CEEM-URJC	0,7	0,6	0,3	0,5	-1,7	-2,2	-4,7	-0,9	-7,9	-2,0	2,6	1,2
CEPREDE-UAM	0,6	0,8	0,4	0,9	-1,4	-0,9	-4,4	-0,2	-7,7	1,9	0,4	1,9
CEOE	0,7	0,0	0,1	0,1	-1,4	-2,6	-4,8	-5,2	-8,3	-8,4	3,0	1,1
Esade	0,7	0,9	1,0	1,0	-1,0	-1,0	-2,0	-1,0	---	---	---	---
FUNCAS	0,7	-0,5	0,0	-0,4	-1,7	-4,0	-4,9	-5,8	-7,8	-8,2	2,5	-1,3
ICAE-UCM	0,8	-0,3	0,1	-0,2	-1,5	-4,5	-4,1	-4,8	-8,0	-8,0	1,0	-1,0
IEE	0,7	-0,1	0,0	0,0	-1,5	-2,5	-4,7	-4,5	-8,2	-8,0	2,8	1,5
IFL-UC3M	0,8	0,3	0,1	0,1	-1,3	-2,6	-4,4	-1,2	-7,6	-4,2	2,9	6,0
Intermoney	0,7	-0,4	0,0	-0,2	-1,5	-3,6	-4,4	-2,4	-7,5	-3,3	2,6	-1,7
La Caixa	0,7	0,2	0,0	0,0	-1,8	-3,4	-4,4	-1,3	-7,5	-2,3	2,7	1,2
Repsol	0,7	-0,2	0,0	-0,3	-1,7	-3,9	-4,7	-2,8	-7,9	-4,8	2,9	1,6
Santander	0,7	0,9	0,5	0,7	-0,7	-0,9	-3,9	-0,3	-3,0	2,0	---	---
Solchaga Recio	0,7	0,0	0,0	0,2	-1,8	-2,0	-4,3	-3,3	-7,7	-6,2	2,5	1,5
Batez bestea	0,7	0,2	0,1	0,1	-1,5	-2,7	-4,4	-2,7	-7,6	-4,7	2,5	1,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	1,3	2,3	0,9	1,4	-1,3	-0,8	-1,3	2,7	-4,7	0,7	---	---
Esp. Bankua (2011-03)	0,8	1,5	0,7	1,0	-1,1	-0,9	-3,1	3,6	-7,5	1,3	---	---
E. Batzord. (2011-11)	0,7	0,7	0,7	0,9	-0,9	-2,6	-5,4	-0,3	-7,6	-0,9	---	---
NDF (2011-09)	0,8	1,1	0,8	1,4	-1,2	-0,8	-5,1	-0,9	---	---	---	---
ELGE (2011-11)	0,7	0,3	0,0	-0,1	-1,3	-2,0	-4,8	-4,0	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2011ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
AFI	-1,5	-1,6	8,6	3,8	0,8	-1,1	3,1	1,5	-1,8	-2,0	21,5	23,1
BBVA	-1,2	-0,4	9,3	5,4	1,9	0,9	3,1	1,2	-1,7	-0,9	21,5	22,1
Bankia	-1,3	-1,7	9,5	6,6	2,0	1,1	3,2	2,4	-1,5	-1,6	21,4	22,7
Catalunyacaixa	-1,1	-1,0	8,8	3,9	1,8	0,1	3,2	1,5	-1,4	-0,4	21,3	21,8
Cemex	-1,3	-1,6	9,1	4,3	1,8	-0,4	3,1	1,3	-1,5	-1,5	21,5	22,5
CEEM-URJC	-1,1	-0,3	9,5	3,9	2,0	0,8	3,2	1,6	-1,4	-0,6	21,3	21,7
CEPREDE-UAM	-0,9	0,3	8,1	4,2	1,6	2,2	3,2	2,1	-1,3	-0,1	21,3	21,6
CEOE	-1,2	-1,5	9,3	6,5	1,9	1,0	3,2	1,7	-1,7	-1,6	21,5	22,8
Esade	-0,1	0,2	4,0	4,0	0,5	1,0	---	1,7	---	---	20,0	20,0
FUNCAS	-1,3	-2,4	9,2	4,1	1,5	-2,2	3,2	1,7	-1,6	-2,0	21,5	23,0
ICAE-UCM	-1,1	-2,1	8,9	3,3	1,3	-2,8	3,2	1,6	-1,4	-0,6	21,3	21,7
IEE	-1,3	-1,5	9,5	5,9	1,5	0,6	3,2	1,7	-1,6	-1,6	21,5	22,7
IFL-UC3M	---	---	9,3	6,2	1,9	2,0	3,2	1,9	-1,1	-0,3	21,4	22,2
Intermoney	-1,2	-1,3	9,1	1,7	1,8	-1,4	3,1	0,5	-1,5	-1,9	21,5	22,9
La Caixa	-1,3	-1,0	9,0	2,3	1,3	-1,6	3,2	1,4	-1,7	-2,4	21,5	22,8
Repsol	-1,2	-1,1	9,4	5,4	2,0	2,2	3,1	1,5	-1,3	-0,8	21,4	22,9
Santander	-0,7	0,2	7,8	5,3	2,3	2,6	3,1	1,8	-0,9	0,1	20,7	20,6
Solchaga Recio	-1,3	-1,5	9,3	5,4	1,9	0,5	3,3	1,8	-1,7	-2,0	21,5	22,5
Batez bestea	-1,1	-1,1	8,8	4,6	1,7	0,3	3,2	1,6	-1,5	-1,2	21,3	22,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	0,0	1,3	8,3	7,9	3,0	4,1	---	---	0,2	1,4	19,8	18,5
Esp. Bankua (2011-03)	---	---	8,0	6,1	2,7	4,9	2,9	1,5	-0,6	1,0	20,7	20,4
E. Batzord. (2011-11)	-1,0	0,0	8,3	3,8	1,6	1,5	3,0	1,1	-1,0	-0,4	20,9	20,9
NDF (2011-09)	-0,9	0,5	8,7	3,0	2,1	0,8	2,9	1,5	-0,8	0,1	20,7	19,7
ELGE (2011-11)	-1,3	-1,3	9,1	3,6	1,5	1,7	3,0	1,4	---	---	21,5	22,9

Iturria: Funcas.

Hala eta guztiz ere, une hauetan egon badaude, hipotesiak okerragoa izanda ere, ekonomiaren eta enpleguaren egoerak hoberantz egingo duela uste duten adituak eta ezkorragoak diren

analisigileak, datozen hiruhilekoetan lanpostuak galaraziko dituen beste erorialdi bat oso litekeena dela iradokitzen dutenak. Cepredek %0,6ko hazkunde tasa iragarri du espainiar ekonomiarentzat 2011. urtean eta bi hamarren gehiago bakarrik haziko da 2012ko batez bestean, %0,8an kokatu arte. Beste alde batetik, Funcasek %0,7ko eta %-0,5eko urte arteko aldakuntza tasak estimatu ditu, hurrenez hurren, 2011rako eta 2012rako. Azken tasa hauek bateragarriak dira defizitaren helburua betetzearekin. Eskura dauden beste aurreikuspen batzuk Consensus Forecastek argitaratzen dituenak dira. Aditu multzo horrek %0,7an kokatzen du 2011ko hazkunde tasa eta %0,5ean 2012koa.

Beste alde batetik, Espainiako ekonomiaren arazo nagusiak, hots, herrialdean dagoen langabezia tasa altuak, ez dirudi inolako galgarik aurkitzen duenik goranzko joeran aurreikusi den 2011-2012 biurtekoan. Hori horrela izanda, langabezia tasa %21,5ean kokatuko da 2011n eta %23,0an 2012an.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2011ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	11.IV	2011	12.I	12.II	12.III	12.IV	2012
BPG	0,4	0,6	0,4	0,6	1,0	1,1	0,8
Kontsumo pribatua	0,6	0,4	0,7	0,8	1,0	1,0	0,9
Kontsumo publikoa	-3,7	-1,4	-2,0	-1,1	-0,1	-0,2	-0,9
Kap. finkoaren eraketa gordina	-1,5	-4,4	-0,9	-0,3	0,1	0,3	-0,2
- Inbertsioa ekipamenduan	2,9	0,4	2,1	1,7	2,0	2,0	1,9
- Inbertsioa bestelakoetan	0,0	-1,2	0,8	1,7	2,0	2,2	1,7
- Inbertsioa eraikuntzan	-4,1	-7,7	-2,9	-2,0	-1,4	-1,2	-1,9
Barne eskaria	-0,5	-0,9	-0,2	0,1	0,5	0,6	0,3
Esportazioak	5,6	8,1	4,0	4,3	4,3	4,5	4,2
Inportazioak	1,3	1,6	1,3	2,2	2,5	2,8	2,2

Iturria: CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak

Eustatek argitaratu dituen hiruhilekako kontu ekonomikoek eman duten informazio berriarekin eta eskura dauden koiunturako gainontzeko adierazleekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoaren aurreikuspenak eguneratu dira 2011-2012 epealdirako. Estimazio berri honek beherantz

zuzendu ditu ekonomia hazkundearen aurreikuspenak bi urte horietarako. Hain zuzen ere, 2011rako batez besteko hazkundearen aurreikuspena %0,7an kokatzen da orain, aurreko hiruhilekoan argitaratu zen balioa baino hamarren bat beherago. 2012rako, berriz, beherantzko zuzenketa handiagoa da eta urte osoko batez besteko gehikuntza tasa %0,7 izango dela espero da.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2011ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak	2011.IV	2011	2012.I	2012.II	2012.III	2012.IV	2012
BPG	0,4	0,7	0,4	0,5	0,7	1,0	0,7
Azken kontsumoa	0,0	0,4	0,0	0,3	0,6	0,8	0,4
Kontsumo pribatua	0,4	0,6	0,4	0,6	0,7	0,9	0,7
Kontsumo publikoa	-1,7	-0,3	-1,4	-0,9	0,3	0,8	-0,3
Kapital eraketa gordina	0,1	-0,7	0,2	0,5	0,7	0,8	0,6
Barne eskariaren ekarpena	0,1	0,2	0,2	0,3	0,6	0,8	0,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,3	0,5	0,2	0,1	0,1	0,2	0,2
Lehen arloa	4,6	-11,7	-1,1	-20,7	-19,3	-17,0	-14,5
Industria	0,7	2,3	1,1	2,0	2,4	3,0	2,1
Eraikuntza	-5,5	-5,4	-5,4	-4,5	-3,8	-3,0	-4,2
Zerbitzuak	0,8	1,0	0,8	0,9	1,0	1,0	0,9
Balio erantsi gordina	0,3	0,7	0,4	0,6	0,8	1,0	0,7
Ekoizkinen g. zerga garbiak	0,3	0,1	0,4	0,6	0,5	0,5	0,5
BPGren deflatorea	2,2	1,9	2,2	2,1	2,4	2,4	2,3
Enplegua	-1,0	-0,5	-0,9	-0,7	-0,3	0,1	-0,4
Langabezia tasa	10,8	10,8	10,9	10,9	10,6	10,3	10,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Barne eskariak, hazkunderari oso ekarpen txikiak egingo dizkion arren, hobekuntza txiki bat erakutsiko du 2012ko amaieran. Bitartean, osagai horrek moteltzeko joera izango du datozen hiruhilekoetan, barneko azken kontsumoaren apaltzearen ondorioz. Kanpo eskariak, berriz, oso ekarpen mugatua egingo dio ekonomiaren gehikuntzari, nazioarteko ingurunea, bereziki Espainiako merkatua, ahul egongo delako.

Familiek kontsumoan egingo duten gastuaren hazkunderaz dagoen aurreikuspena, hurrenez hurren, %0,6an eta %0,7an kokatzen da 2011rako eta 2012rako. Nazioarteko ekonomiaren bilakaeraz, bereziki Euroguneko eremuaz, eta lan merkatuaren egoeraz dauden igurikimen

ezkorrek zuhurtasuna areagotu dute familiengan, kontsumitzeko erabakiak hartzeko unean. EAEko administrazio publikoetako kontsumoarentzat hazkunde aurreikuspenak nabarmen gutxitu dira eta bi urteetarako %0,3ko jaitsiera ezarri dute.

Kapital eraketa gordinari dagokionez, batez besteko hazkunde tasa 2011. urtean %-0,7 izango da eta %0,6, berriz, 2012an. Osagai horren joerak aurrera egingo du hazkunde berreskuratzen eta aurreikuspen honetan kontuan hartu den epealdi osoan tasa positibo txikiak jasoko dituela estimatu da.

EAEko BPGren eta enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, portaera onena erakutsiko duten jarduera adarrak industria eta zerbitzuak izango dira. Hala ere, moteltze arineko joera erakutsiko dute 2011ko azken hilabeteetan, gero oso astiro eta urrats ahuletan susperraldirako bidea berreskuratzen. Eraikuntzak narriadurako ibilbidean jarraituko du eta ez du hazkunde tasa positiborik lortuko aurreikusi den epealdi osoan zehar. Oro har, ez barne eskariak, pribatuak zein publikoak, ez nazioarteko inguruneak bereganatuko dute EAEko ekonomia jardueraren bultzagilea izateko ardura.

Lan merkatuaren bilakaeraz dauden aurreikuspenek islatzen dute datozen lau hiruhilekoetan enpleguaren beherakadak segituko duela eta 2012ko amaieran bakarrik lortuko dela lanpostuen

sorrera garbiaz hitz egitea. Hain zuzen ere, enplegua %0,5 gutxituko da 2011. urtean eta %0,4, berriz, 2012an. Beraz, aurreko hiruhilabeteko aurreikuspenetan estimatu zena baino narriadura sakonagoa espero da orain lan merkatuan. Langabezia tasarentzat egin diren estimazioek urteko batez bestea %10,8an kokatzen dute 2011rako eta %10,7an, berriz, 2012rako.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak prestatu duen eszenategi makroekonomikoa osatzeko oinarritzko hipotesi batzuk egin dira nazioarteko hazkunde ekonomikoaz, deflatoeen bilakaeraz, euroak dolarren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak epe laburrean markatuko duen moneta politikaz.

Atzeraldian erortzeko gero eta handiagoak diren arriskuak saihestu aldera, Europako Banku Zentralak datozen hilabeteetan interes tasak gutxituko edo, behintzat, bere horretan utziko ditu. Halaber, erakunde horrek neurriak hartuko ditu likidezia areagotzeko eta Europako bankuek dituzten tentsioak baretzeko. Prezioen mailari dagokionez, datozen hiruhilekoetan beren bilakaera kontrolatuta egongo dela espero da eta salneurrien gáineko tentsioak neurritsuak izango direla aurreikusten da.

Oraingo aurreikuspenak estatubatuar dolarren aldean euro garesti batean oinarritu dira. 2012. urterako, batez beste, euroaren balioa 1,42 dolarren inguruan egongo dela estimatu da. Edozein modutan, aldagai horren balioak gorabehera handiak izan ditzake oinarritzko eszenategian interes tasen etorkizuneko bilakaeraren arabera eta, batez ere, Euroguneko herrialde batzuetako zor subiranoaren eta berau etorkizunean izango duen joeraz dagoen ziurgabetasunaren arabera.

